

ELKARRIZKETA: OSKAR J. SAIZ BORONDATEZKO LANKIDEA

Arrasate

P R E S S

1999ko
Urtarrila 15
435. zenb.



Arrasate - Kemper Senidetasuna lantzen

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KULTURA ELKARRIZKETA: NICK TWINLLEY
GURE ENPRESAK: ZIRT-ZART • KIROLAK: MONDRAK ENTRENATZAILE BERRIA



Arrasateko OSASUN GIDA

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1..... ☎ 943 77 13 34

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1..... ☎ 943 77 14 72

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI -TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1..... ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETZEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎ 943 77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B..... ☎ 943 77 12 63

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ☎ 943 79 53 63

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56..... ☎ 943 79 44 22

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56..... ☎ 943 79 44 22

Predikatzaile gehiago

Batzuek jakingo ez duten arren, Leioa aldean kazetaritza ikasketak egiten dihardut azkenengo urteetan. Ikasketa hauen pareko lanbide honek, oinarrian, konplikatuegia ez badirudi ere, ez da txantxetan hartzekoa. Hor daude manipulaztea gogoko dutenak, eta baita beraien funtzioaren aukerak nahikoa jorratzen ez dituztenak ere.

Alde batetik, objektibitatea existitzen ez den gaitza/birtutea da, eta bestetik, edozein komunikabidetan luzatutakoak beti jendearengan nolabaiteko eragina sortaraziko duela jakitea. Ez noa Malcolm X-en esaldi famatua



Iker Barandiaran

errepikatza, tamalez ia Che gaixoaren irudia besteko ezaguna den arren, honek bezala, benetako izpiritu edo zentzua praktikan ia galduta baitu. Dagoeneko komunikabide batzuetan aritu banaiz ere, argi daukat alor desberdinak landu arren, taktu zein kontu handia izatea bidezkoena dela.

Orrialde hau betetzea bezain arautu gabeko jardun baten aurrean nagoenean, ordea, nahiago dut (momentuz behintzat) gai zehatzak jorratu edo landu, denbora luze batean iritzi artikulua askeak asmatzea baino. Egia da, aukera ematen dizutenean, konformista hutsa ez zaren heinean behintzat, adin desberdineko jendeak

irakurtzeko eskuragai izango dituen zentsurarik gabeko idatziak luzatzea tentagarria egiten zaizula. Inola ere bakoitzaren egoa puztu nahian ezta zure burua sermoilari edo pre(ss)dikatzailerik bihurtzeko asmoarekin; jendeak zuk jaurtitakoa irakurtzen badu, pentsa dezala, besterik gabe. Zoritxarrez, urteak pasa ahala, gure herri "dinamikoak" ez du hainbesteko inspiraziorik eskaintzen eta jorratutako gaiak pilatzen doazen arabera, errepikatuko (ote) zaren sententzioak inguratzen zaitu.

"Hilerokoa" heltzean, probetxuzko zerbeit idazteko asmoek dakartzaten buruhausteez gain, askoz aberasgarriagoa deritzot, azken bolada hau heldu den arte egin ohi zen bezalaxe, orrialde hau kolaboratzaile kopuru zabalagoak betetzea. Honela, ideia eta iritzien eskaintza askoz aproposagoa delako eta asterokoa irakurleentzako dinamikoagoa bilakatzen delako.

"Jorratutako gaiak pilatzen doazen arabera, errepikatuko ote zaren sententzioak inguratzen zaitu."

"Lehenengo iraultzarekin eta gero elkarlana dela medio, jendea eskatzera ohitu da Nikaraguan eta menpekotasun handia dago. Elkarlanak asko egiten du, baina ohitura txarrak ere sortarazten ditu"

Oskar J. Saiz

ITURRI ONETIK

Velez de Mendizabalen azken liburua

Aurten 25 urte beteko dira Josemari Velez de Mendizabal Arrasateko kronikak bidaltzen hasi zela garai hartako *Zeruko Argia* aldizkarira. Artean 21 urte zituen, euskaldunberria zen eta *Mendiaga* ezizenarekin izenpetzen zituen bere kronikak.

Urte seinatu hura ospatzeko, liburu bat argitaratu du otsaila-martxo inguruan. "Mende Laudenean" izango du izena eta Arabako Vital Kutxak argitaratuko dio. Liburua eginda dago eta zuzenketak ere bai. Orain moldiztegi dago.

Ehun artikulua inguru bilduko ditu liburuak, lau zatitan banatuta. Horietako batean, *Arrasate Beti* izena duenak, *Arrasate Pressen* kaleratutako hogeita artikulua jasotzen ditu.

500

lagunek ikasi dute ingeleza CIMen murgiltze ikastaroetan

1991n Arrasateko Hizkuntza Eskolak Idiazabalen murgiltze ikastaroak eratzen hasi zenetik, 140 enpresatara 500 lagunek hartu dute parte ikastaro horietan. Iaz ehun lagun baino gehiago aritu ziren 23 ikastarotan. Orain frantsesarekin hasiko dira.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetaritza:** Marijo Deogracias, Ubane Madrazo, Madoz Osa. **Publizitateak:** Kaitin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñarain (Tel.: 943 79 02 26) **Disenatzailea:** Txos Azurmendi. **Asteburuotako berriemakaldea:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arribu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Maithe Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 26). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lago-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Joxe Aranzabal - Txos Azurmendi.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Salarren laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAKI

- Ostirala, 15**
• Gau eta egun: Zabala, Zarugalde
- Larunbata, 16**
• Gau eta egun: Ruiz, Maala
- Igandea, 17**
• Gau eta egun: Morales, San Andres
- Astelehena, 18**
• Gau eta egun: Azkoaga, Ferrerías
- Asteartea, 19**
• Gau eta egun: Español, Iturriotz
- Asteazkena, 20**
• Gau eta egun: Korquera, Musakola
- Osteguna, 21**
• Gau eta egun: Irizar, Erguin

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igalatorioa 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara 943 76 55 76
- DYA**
Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) . . . 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• ikuskatzailea 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
• Fax zenbakia: 943 03 05 14
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 76 14 69
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) . . . 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) . . . 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**
KIUB-OMIC 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**
Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia 943 79 58 77

ESKOLA EREDU ERDALDUNAK SALATU!

Euskal gizartea euskararen normalkuntza eskatzen ari da behin eta berriz. Baina argi dago hizkuntza bat ezin dela normalizatu dagokion lurraldeko biztanleek ezagutzen ez badute. Euskal Herriko biztanleriaren gehiengo handi batek ez daki euskaraz eta, beraz, prozesu normalizatzaile bat gauza dadin, hurrengo belaunaldiek geure hizkuntza jakitea lortu behar da. Horretarako beharrezkoa da ematen zaien hezkuntzak hori bermatzea.

Gainbegiradotxo batek zera diosku: egun ikasten dabilen euskal herritar askok ez du euskaraz jakingo edo behintzat ez du eskolan ikasiko. Eskualdeka alde galantak ematen dira, baina oro har, umeen portzentaia handi batek euskararen ezagutza bermatzen ez duen eredu-tako batean egiten ari da bere ikasketak (kasurik larrienak euskaratik ofiziala ez den zonalde-takoak dira, noski: Iparralde eta Nafarroako Hegoaldea). Ikasle horiek ahalegin pertsonal eta ekonomiko handia egin beharko dute etorkizunean euskara ikasi nahi badute.

Bistan dago euskara ezagutzeko eskubidea biztanle orori bermatuko dion eskola plangintza egokitu behar dela, gaur eguneko ereduaren sistema behin betiko gaindituz. Horrexegatik, hain zuzen ere, Euskal Herrian Euskarazek irakaskuntzarekin loturiko kanpaina hasi du.

Urtarrilean zehar EHEK eskola eredu erdaldunen salaketa egingo du era bitan: bate-tik informazioa emanez (eredu erdaldunak zein eskolatan mantentzen diren aipatuz); bestetik, interpelazioen bidez (eskola horiei daukaten erantzukizuna gogorarazi, aurrez aurre edo gutunen bitartez). Euskalduntzen ez duten ereduak Euskal Herriari zer nolako kaltea egiten dioten gogoratu nahi dugu. Hemen ez ditugu ezertarako behar.

*Euskal Herrian
Euskaraz*

Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sor ez dadin, araudi berria ezarri dugu, gutunen saillean.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitahi- nahiez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak

laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

- Anonimo, gaitzenez edo inizialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordetako. Erredakziora ailegatutako ordenean kale-ratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.
- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi behar du. Telefono zenbakia nahikoa da.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Uste duzu ondo eramaten ari direla su etena?

Lau hilabete bete dira ETak su etena aldarrikatu zuenetik.



Ruben de Palacio
(24 urte)
Langilea

Konfiantza handiagoa izan beharko lukete hemengo alderdian.



Israel Gimeno
(23 urte)
Langilea

Ez dut larregi ulertzen, baina badirudi ez batzuei ez besteei ez zaiela su etena kome-ni.




Nuria Largo
(18 urte)
Ikaslea

Nik al dakit, ba! Ez dakit zer esan. Ez dut politikaz ulertzen.




Olaya Cuevas
(19 urte)
Ikaslea

Ez diot kasu handirik egi-ten, egia esan. Su etenean baldin bagaude, zertarako kalera irten Jarrai bezala?



Jesus Arzelus
(52 urte)
Argiketaria

Borondate gehiago ipini beharko litzateke alde guztietatik.



Jose Antonio Axpe
(60 urte)
Erretiratu

Orain arte ondo eramanda, baina egun hauetako gertakizunek ilundu egin dute. Gobernu-a, berriz, uste dut ez dabilela egitan.



Begoña Gantxegi
(51 urte)
Langilea

Iruditzen zait gauza luza-tzen ari dela. Presoen hurbil-tzeak, adibidez, lehenago eto-ri behar zuen.



Josune Lizarraga
(37 urte)
Dendaria

Ondo hasi zen, baina orain ez dakit ez ote den galtzen ari aurreneko asmoa. Ez dadila okertu, behintzat.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Berandu baino lehen, zaindu zaitez!

Zuk nahi baduzu,
zure osasuna zaintzeko gaude.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

Elisabeth

Hamabostaldi honetan probetxa ezazu aukerarik onena prezio onenean.

Araba Etorbidea, 18 Telf. 943 771 486 20500 ARRASATE

Arrasate

LANAK

SANTA TERESA

Doneztebe Portuko kalean saneamendu lanak egiten ari dira.

JOSE LUIS IÑARRA


Jadanik amaitu dute oinezko pasabidea.

OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak dira.

KONTZEZIÑON

Etxeak egiteko lanak jarraitzen dute.



Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 15



LARUNBATA 16



IGANDEA 17

Lainoak agertuko diren arren, desagertzen joango dira, egunak aurrera egin ahala. Temperatura igo egingo da.

Goizean behelaino izango dugu. Lainoak ugarituko dira eta euria ere egin dezake. Temperaturak, berriz, behera egingo du.

Lainoak izango dira nagusi zeruan. Euria egingo du eta elurra ere egin dezake, 800 m.tik gora. Tenperaturara jaitsi egingo da.

Ilargia



Ilbehera

Igandean, ilargi berria izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)


Santa Teresa

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%96,6



Distantziak

Arrasa	Baiona	Bartzelona	Bilbo	Brusela	Donostia	Gasteiz	Iruñea	Madril	Paris
121	690	579	57	1.158	72	40	107	391	864
	170	620	1.038	50	180	120	519	743	
			2.883	529	530	437	621	1.113	
			1.207	119	66	159	395	911	
			1.088	1.088	1.208	1.180	1.556	296	
			118	118	118	92	469	792	
			93	93	93	93	351	910	
			93	93	93	93	407	884	
			1.261	1.261	1.261	1.261	1.261	1.261	

Alboka ikastaroa

- Urtarrilaren 23tik
San Juanak arte
- Larunbat goizetan,
hiru txanda: 10-11, 11-12, 12-13
- Arrasate Musikalen
- Hastapen eta sakontze mailak
- Matrikula: 3.000 PTA
2.000 ikasle eta langabeei

Euskal dantzak

- "Lore Gazteak"
dantza taldearen eskutik
- 10-14 urte bitartekoentzat
- Otsailaren 17tik
San Juanak arte
- Asteazkenetan,
18:30etatik-19:30etara
- Matrikula: 1.000 PTA

Gazte Ikastaroak

IZEN EMATEA: Gazte Bulegoan
(☎ 943 77 00 65)



ARRASATEKO UDALA
Gazteria Saila ■

Gaur egungo dantza eta jazz dantza

- Ana Mandiolaren eskutik
(Patterson metodoa)
- Larunbatetan
(16:00etatik-17:30etara
eta 17:30-19:00etara)
- Hastapen eta sakontze mailak
- Otsailaren 6tik maiatzaren 29ra
- Arrasate Musikalen
- Matrikula: 5.000 PTA
3.000 ikasle eta
langabetuentzat

Txalaparta ikastaroa

- Ostiraletan (20:00etan)
eta larunbatetan (10:00etan)
- Otsailaren 5etik
maiatzaren 8ra
- Musakolako Saloian
- Hastapen eta sakontze mailak
- Matrikula: 2000 PTA

15

ostirala

■ ZINEA

Elisabeth, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

16

larunbata

■ ZINEA

Por siempre jamas, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ESKI IRTEERA

Besaidek Formigalera eskiatzera joateko irteera antolatu du. Autobusa Gari-bai kaletik aterako da, goizeko 05:00etan.

■ EUSKARAREN ALDE

Euskal Herrian Euskaraz Koordinakundeak autobusa jarriko du euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osora zabaltzeko Iruñean egingo den kale agerraldirako. Txartelak Irati tabernan izango dira salgai. Kale agerraldia arratsaldeko 17:00etan izango da.

17

igandea

■ ZINEA

Por siempre jamas, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ SAIO KOMIKOA

Alexis Valdes Kubako komikorik gazteenaren "Me sale de mi cabecita" lana ikusteko aukera izango da Amaia antzokian. Saioa arratsaldeko 19:30etan izango da eta sarre-ra 1.000 pta. kostako da.

18

astelehena

■ ZINEA

Por siempre jamas, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ESNEA MINTZAGAI

Eroski kontsumo-aretoak "Esnearen kalitatea jatorritik hasita" hitzaldia antolatu du. Hitzaldia Monterroneko jauregian izango da, arratsaldeko 16:30etan.

19 20

asteartea asteazkena

■ ZINEA

Por siempre jamas, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ESNEA HIZPIDE

Eroski kontsumo-aretoak "Esnearen elaborazioa eta bere fabrikazio-prozesuak" hitzaldia antolatu du. Hitzaldia Monterroneko jauregian izango da, arratsaldeko 16:30etan.

■ GAZTEENTZAKO ANTZERKIA

Markeliñe antzerki taldeak *Munduari biran* antzezlan eskainiko die LMHko 4., 5. eta 6. mailetako neska-mutikoei. Saioa Amaia antzokian izango da, goizeko 11:00etan eta arratsaldeko 17:00etan.

■ ESNEA

SUKALDARITZAN

Eroski kontsumo-aretoak "Esneak eta sukaldaritzan duen garrantzia" hitzaldia antolatu du. Hitzaldia Monterroneko jauregian izango da, arratsaldeko 16:30etan.

Mondragon Futbol Taldea

1999ko egutegiaren zozketa egin zen joan den igandean. Zenbaki irabazleak honako hauek dira:

1. saria: 8285
2. saria: 5613
3. saria: 2375

Zenbaki sarituen jabeak otsailaren 10a baino lehen entregatu beharko dituzte egutegiak Mondragon Futbol Taldearen bulegoetan.



Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerías, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

beatriz
oinetakoak
eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

■ **YOGA IKASTAROA**

Arrasateko Yoga Elkarteak norbere burua zaintzeko ikastaroa antolatatu du. Saioak astearte eta ostegunetan izango dira, arratsaldeko 19:10etatik 20:30etara, Jose Luis Iñarra kaleko egoitzan. Interesatuak 943 77 01 33 zenbakira deitu dezakete.

■ **MODA DESFILEA**

Urtarrilaren 22an, ostirala, Almen ikastolak antolatutako moda desfilea izango da, Amaia antzokian. Biltzen den dirua Jabi Mayor gaztearen familiarentzat izango da. Desfilea arratsaldeko 19:00etan izango da. Sarrera 250 eta 500 pta. kostako da eta Iturbiden eta Eskiña tabernan daude salgai.

■ **MENDI ZEHARKALDIA**

Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta, mendi zeharkaldia egingo da Sallentera. Irteera urtarrilaren 23an izango da. Izena emateko aukera izango da urtarrilaren 18an eta 19an, Besaideren egoitzan, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara. Nibologia ikastaroa ere eskainiko da irteera horretan.

■ **IKASTARO UGARI**

Familia eta Gizarte Hezkuntzarako Zentruak autoestima, lorazaintza, IVA edo BEZ eta IRPF, areto dantzak eta literatura ikastaroak eskainiko ditu. Interesatuak deitu 943 79 04 59 edo 943 79 56 40 zenbakietara.

■ **ARETXABALETA ERAKUSGAI**

Gaurko eta atzoko Aretxabaleta ezagutzeko argazki erakusketak dago ikusgai Aretxabaletako kultura etxean. Argazkiok igandea arte egongo dira hantxe. Erakusketan gainera, diapositiba emanaldi bat ikusteko ere badago.

■ **TERMALISMO PROGRAMA**

INSERSOK 1999. urterako antolatutako termalismo programaren bigarren txandan parte hartzeko, maiatzaren 17a arte egongo da irekita.

Izena emateko, udaletxeko Gizarte Zerbitzuetako departamentura jo beharko da.

■ **LANAK TRUKATZEKO IKASTAROA**

Etxeko ardurak gizon

eta emakumeen artean trukatzeko lantegia antolatatu du Arrasateko Udaleko Emakume Sailak. Ikastaroa urtarrilaren 18an hasiko da eta apirilaren 23a arte iraungo du.

■ **HARATUZTEETAKO LEHIAKETA**

Aurtengo haratuzte-etako hormirudi lehiaketa zabalik dago jadanik. Arauak udaletxean jaso daitezke. Hormirudiak, hil honen 29a baino lehen eraman beharko dira udaletxeko Kultura batzordera.

■ **ARETO DANTZAK**

Ekinek areto dantza ikastaroa antolatatu du astelehenetan. Interesatuak 943 77 12 28 zenbakira dei dezakete.

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak aldiko kontratuak egiteko hautaketa prozesu hauek deitu ditu:

- **Administrari laguntzaileen lan-poltsa**
- **Bi telefonozain** (egun erdiz)

Baldintzak:

- Gutxienez 18 urte izatea
- Titulua: oinarritzko batxilergoa, eskola graduatua, LHI edo baliokidea
- Euskarazko 3. H.E. (EGA)
- Telefonisten kasuan, "elbarria"ren legezko izaera izatea.

Oinarriak: udaletxean jaso daitezke.

Eskakerak aurkezteko epea: urtarrilaren 18tik 26ra, biak barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

LAN ESKAINTZAK

Bete gabe dago Arrasate herriko **BAKE EPAILE**aren kargua, eta horregatik, epe bat zabaldu da, urtarrilaren 26an amaituko dena, interesa duten eta legezko baldintzak dituzten pertsonak Arrasateko Alkatetzan idatziz eskura dezaten.

Udaletxeko idazkaritzan aztertu ahal izango da espedientea eta behar den informazioa arakatu, betebeharrak, karguaren iraupena, ordainsari, e.a. ei buruz.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

• **ARTEA** •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak


Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE

NAROKI
LIBURUDENDA · BITXITEGIA

Urtea ederki hasteko
bitxi eder bat zuretzako.

Erdiko kale, 23 • ARRASATE • TEL.: 943 79 20 47

Erdiko kale. 943 79 19 37



Ferrerias. 943 79 87 62

USTEAK USTE

*Mondragoetik
Bilbora*

Egia esan, aspaldi joan barik nengoen kale agerraldietara. Joan den larunbatean, berriz, joatea erabaki nuen. ETak betea zuen askok eta askok eskatzen geniona: armak isiltzea. Orain gure txanda zen, Espainiako gobernua bere partea bete zezan. Horregatik, lagunekin autoan sartu eta Durangora joan ginen eta handik, trenez, Bilbora.

Banekien Arrasatek jende asko joango zela, ostiral gaue-rako ez baitzegoen autobusik libre Gipuzkoan. Hala ere, Durangon mondragoetar mordoxkarekin egin genuen topo. Trena eta Metroa ere lepo-lepo abiatu ziren. Agerraldiaren abiapuntuan ere mondragoetar gehiago, Francoren garaian dikta-dorearen kontra elkarrekin ibilitakoak eta belaunaldi berriak.

Han zegoen jendetza izugarria zen. Jatortri oso desberdinekoak, baina denak bake eske. Azken batean, bakegintzan ezinbestekoa ikusten baita euskal presoan hurbiltzea.

Bidea ez da erraza izango baina, urratsez urrats, egingo da.

Joxe Aranzabal



Irak: politikoki zuzena den genozidioa

* Arrate Landa

1990eko abuztutik, Irakek jasaten dituen zigor ekonomikoek biztanleengan izan duten eragina izugarria izan da:

Ezaugarri bereziak dituen herri bati aplikatu zaizkio: garapenaren atarian, hiritartua eta teknologiaren eta merkataritzaren menpe dagoenari. Gerra aurretik kontsumitzen zituen elikagaien %70 inportatu egiten zituen.

Eraginak handitu egiten dira Golkoko gerrak ekarritako hondamendia dela eta. Adibide gisa: Iraken ahalmen elektrikoaren %85 suntsitu zuten naziarteko indarrek.

1996ko abenduan 986 erabakia indarrean jartzeak ("elikagaiak petrolioaren truke") ez du leundu krisi humanitarioa; baimendutako kopurua ez da nahikoa: gerra kalteen ordainketa (herena) eta desarme batzordearen gastuak kendu ondoren, erdia baino gutxiago erabiltzen da oinarritzko produktuak erosteko.

Zigorrek giza eskubideak urratu Ginebrako IV.

Hitzarmenak debekatu egiten du, gerra metodo moduan, biztanleria zibilari ezar dakiokkeen setioa. Iraken, 1979tik aurrera hezkuntza,

maila guztietan, publikoa zen; gaur hurren %25 ez da eskolara joaten.

Giza Eskubideen Adierazpenak (1948) dio gizaki guztiek dutela eskubidea bizi-modu duina izateko. Gaur, biztanleen %70 behar gorrian bizi da.

Osasunerako Mundu Erakundeko Gutunak (1946) dio osasuna oinarritzko eskubidea dela. 1989an biztanleen %93k osasun zerbitzu publikoa zuen doan eta Irakek sendagaiak sortu eta esportatu egiten zituen; gaur, tratamendua behar duten gaixoen %39k bakarrik lortzen dituzte sendagaiak.

NBERen Gutunak eta 1989ko abenduko 44/215 erabakia eskatzen die herrialde garatuei ez dezatela presio politikorik eragin zigor ekonomikoaren bidez.

Elikadurari buruzko mundu adierazpenak(1992

eta 1996) pertsona guztiek elikadura egokia izateko oinarritzko eskubidea onartzen du eta debekatu egiten du elikagaiak presio politikoa eragiteko erabiltzea. Baina bahiturak eraginda, 800.000 haur baino gehiago hil dira eta beste horrenbeste emakume eta zaharren artean: biztanleriaren %8 baino gehiago.

EEBBen zerbitzura

Epe laburrera, haien industria militarari egiten dio mesede; 1990etik, irakiarren petrolio-kuota Kuwaitek eta, batez ere, Saudi Arabiak esportatzen dute.

Epe ertainera, bere aliatu handiena den Israelen nagusitasun estrategikoa mantentzen du: horrela, bi aldeko hitzarmen bidegabeak inposatu ahal dizkie palestinarrei eta inguruko Estatu arabiarrei.

Epe luzera, eskualde hartako petrolio-erreserben kontrola ziurtatzen du, kontuan izanda XXI. mendean EEB-Bek erabiliko duten petrolioaren %70 Golkotik etorriko dela.

Estatu zaindua

Irakek bere armategi ez konbentzionalak suntsitu ditu eta onartu egin du bahituraren ondoren bere ahalmen teknologikoa eta merkataritza kontrolatzea, denbora mugarik gabe. Horrela epe luzera kontrolatu ahal izango dute. Frantzia, Errusia eta Txinak bahitura bukatzeko egutegia egiteko ordua dela diote; EEBBek eta Britainia Handiak, Irak berriz armatzen ari dela aldarrikatuz, krisia sorrarazi eta erasotu egin dute berriz.

Mundu osoak ezin al du ezer egin horrelako egoeraren aurrean?

“
Tratamendua behar duten gaixoen %39k bakarrik lortzen dituzte sendagaiak
”

* Arrasateko Komite Internazionalistak-eko kidea

astea bi hitzetan

■ **Aramaio eta Deba ibaiak handituko dituzte**

Pasa den ostegunean hasi eta astelehena bitartean, sei zulo egin zituzten Otalora Lizenziatua kaleko hiru gunetan. sei metroko sakonerarekin, aipatutako kalearen azpitik doan Aramaio errekararen zolueren laginak ateratzea zen asmoa. Ondoren, gauza bera egingo dute Deba ibaia-reen. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzatik ezagutarazi digutenez, bi ibai hauen ubideek ez dute uholdeak jasateko gaitasunik eta ondorioz, biak handitu behar dituzte.

Azterketek udara arte iraungo dute eta ondoren, lanak egiteko proiektuekin hasiko dira.

■ **Gurutze Gorria diru faltan**

Urte bukaerarekin batera, Gurutze Gorria eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzar-

mena apurtu egin zen behin-behinekoz. Ondorioz, Gurutze Gorriak ez ditu berriz larrialdiak zainduko. Deba Garaian, Eusko Jaurlaritzak "Gipuzkoako Anbulantziak" izeneko enpresa pribatua kontratatu du lan hori betetzeko. Dirudienez, Gurutze Gorriak 15 milioi pezeta behar ditu dauzkan bi ambulanziaz modu egokian erabiltzeko, baina Eusko Jaurlaritzak 5 milioi besterik ez dizkio eman nahi. Orain, otsailaren 28a arteko tartea daukate aipatutako bi erakundeek dituzten arazoak konpontzeko.

■ **Euskadiko Kutzaren irabaziak**

Euskadiko Kutzak, ia 20 mila milioi pezetatara irabaziekin itxi du urtea. 1997. urtearekin alderatuz gero, %13,3an handitu ditu irabaziak. Hazkunde nabarmena, aurrezkien kaptazioan

lortu dute, batez ere, abantaila fiskaldun aurrezki modalitatean, Inbertsio Fondoetan esaterako. Ongizate Aurrezki produktu berriekin ere arrakasta nabaria lortu dute. Finantzaketa eremuan ere oso fin ibili dira bukatu berri den urte honetan. Aipatu beharra legoke gainera, bitartekaritza marjina, %6,1ean handitu dela.

■ **Mondragoetarrak Bilbon**

"Euskal Presoak Euskal Herrira". Hauxe izan zen Bilboko kale agerraldiko eskaera. Eta hantxe izan ziren mondragoetar ugari ere gauza bera eskatzen. Zortzi autobus irten ziren zehatz mehatz, 500 pertsona inguru. Sei autobus Herri Bata-sunak antolatu zituen eta EAJK eta EAK, bana. Eguraldiak ez zuen, ez, jendea kokildu.



ZURITASUNA NAGUSI

Asteleheneko lehenengo orduetan, Mondrago eta inguruak zuriz jantzita ageri zitzaizkigun. Udalan 4 zentimetroko elurra neurtu zen eta Bedoñan 4,5 zentimetrokoa. Gasteizerako bideak itxita izan ziren eguerdi partera arte, bai Arlaban eta baita Gatzaga ere. Kanpazarreko mendatea, berriz, goizeko zazpitan zabaldu zuten.

Bestelako arazorik ez zuen sortu elurrak eta arratsalde parterako egoera bere onera itzuli zen.

“ Elorriokoa naiz. Ezkondu eta gero Arrasaten jarri ginen bizitzen. Nik Lagun Aron egiten nuen lan. Han ez ginen gustura bizi izan, zeren nire emaztea txiletarra denez, jendeak gogor egiten baitzion. Horregatik, lau umeak hartu eta Txilera etortzea erabaki genuen. Hemen enpresa bateko sendagilea naiz. Santiagoko Euskal Etxeko abesbatzako lehendakaria ere banaiz”.

FERNANDO ZUBIA
Euskadi Irratian,
1998.12.22

Egun erdiz **KAZETARI LANAK** egiteko pertsona bat behar da **ATXABALTA TELEBISTA**rako.

Baloratuko dena:

- euskara maila • herrikoa izatea • esperientzia izatea •

Curriculum-ak udaletxe zaharrera, Durana 11 -2. pisua, ekarri edo Aretxabaletako 151 pk.ra bidali.
Aurkezteko epea urtarrilaren 29an bukatuko da.

UNZUETA
J A T E T X E A
Gaurtik aurrera **ZABALIK!**

- Ospakizunak
- Jaunartzeak eta bataioak

- 1) Babarrunak (aza eta odolostearrekin)
 - 2) Bakailao frijituak edo bildots menestra
 - 3) Postrea+edaria
- 2.800+%/7 BEZ**

Zabola auzoa. ARAMAIO.
Tel.: 945 44 50 95

Jaiotzak

- Iker Zubiaga Silvar. Abenduaren 12an.
- Ainhoa Mendizabal Gonzalez. Abenduaren 17an.
- Irati Gutierrez Artetxe. Abenduaren 18an.
- Unai Alberdi Saenz. Abenduaren 24an.
- Maitane Altuna Castellano. Abenduaren 27an.
- Mireia Cabrera Morales. Abenduaren 31n.
- Eider Casado Lozano. Abenduaren 31n.
- Miren Atondo Azpilikueta. Urtarrilaren 5ean.
- Lia Garai Bengoa. Urtarrilaren 7an.
- Unai Galán Segovia. Urtarrilaren 9an.

Ezkontzak

- Angel María Guridi Iriarte eta Raquel Viamonte Santillas. Zibilez. Abenduaren 19an.
- Joakin Murgiondo Larrea eta Miren Gurutze Atxa Sagasta. Zibilez. Abenduaren 19an.
- Valeriano Ropero Rodríguez eta Esther Laskurain Carrasco. Urtarrilaren 8an. Zibilez.

Heriotzak

- Genaro Osinaga Sáez de Nanclares. 84 urte. Abenduaren 18an.
- Manuel Cabanillas Sánchez. 84 urte. Abenduaren 25ean.
- Eugenio Andrés González. 77 urte. Abenduaren 28an.
- Jose Antonio Arregi Etxabe. 84 urte. Urtarrilaren 1ean.
- Leonarda Beloki Cillaurren. 90 urte. Urtarrilaren 2an.
- Manuel Francisco Alvarez Peixoto. 72 urte. Urtarrilaren 3an.
- Pedro Otxoa Abarrategi. 73 urte. Urtarrilaren 4an.
- Jesus Arizmendiarratea Madariaga. 76 urte. Urtarrilaren 6an.
- Benita Garro Iñurria. 73 urte. Urtarrilaren 6an.
- Rafael Unamuno Sologaitoa. 92 urte. Urtarrilaren 9an.



Eusko Jauriaritza utzi eta MCCra itzuli da Jabier Retegi, argazkian ezkerretara dagoena.

MCCk aldaketa garrantzitsuak egin zituen 98aren amaieran

“Urte berria, bizitza berria” dio esaera zaharrak. MCCk ere antzeko zerbait pentsatu bide du. 98aren azken hiru hilabeteetan aldaketa esanguratsuak egin zituen zenbait kooperatibaren goi karguen artean.

Aldaketa handienak autogintzan eta MCCren zerbitzu zentraletan gertatu dira nagusiki. Kasurik deigarriena akaso eta hainbat aldaketa eragin dituena Julian Arrillagarena izan da. Maier enpresa utzi eta Ulmara pasatu zen.

Beste aldaketa eragile Danobat taldea izan da. Kargu berria sortu da han, lehendakariaren laguntzailea, eta

horrek ekarri ditu aldaketak. MCCren zerbitzu zentraleri dagokienez, Manolo Quevedoren jubilazioak eta Jabier Retegiren etorrera izan dira aldaketa gehien sortu dituztenak. Iñaki Dorronsorok LKS utzi eta taldearen teknologiaz eta kalitateaz arduratuko da, Retegiren ardurapean. Jabier Sotil, bestalde, Fagor Elektratresnak utzi eta LKSra pasatu da.

Jabier Retegi, oraintsu arte Industria sailburua izan dena, datorren astelehenean hasiko da MCCn. Oraindik zehaztuta ez badaude ere, badirudi Retegik ardura

berriak izango dituela.

MCCko iturriek ez diete garrantzi handiagorik eman nahi izan aldaketa hauei. Normaltaz jotzen dituzte 90 inguru enpresa dituen talde baten barruan.

FAGOR ARRASATE

MCCn sarturik dagoen Fagor Arrasatek, bestalde, ebakuntzarako lau linea salduko dizkio Egiptoko altzairugilerik handienari.

Salmenta hau lehia estuan irabazi du Fagorrek, alemanak, italiarrak eta estatubatuarrek gaudituz. Salmenta 2.000 milioi pta.koa da.

Kooperatiben goi karguetan aldaketak

Izenak	Nondik	Nora	Langileak	Salmentak
Julian Arrillaga	Maier	Ulma	650	25.000
Jose Manuel Salbide	FPK	Maier	900	15.000
Begoña Aranzabal	MCC Autogintza	FPK	65	2.300
Rafael Leturia	Danobat Taldea	Urola	130	1.600
Agustin Aranbarri	Danobat	Danobat Taldea	800	21.000
Iñaki Dorronsoro	LKS	MCC Teknologia eta Kalitatea	—	—
Javier Sotil	Fagor Elektratres	LKS	—	—

Psikogeriatriko berria

Aita Menni ospitalak psikogeriatriako zentru berria eraikiko du Zerrajerako eraikin zaharrear. Orain arte, Uribe auzoan behin-behinekoz irekitako zentruak baino bi bider gaixo gehiago hartuko ditu zentru berri honek. Oraingoz 30 leku eskaintzeko asmoa daukate eta dagoeneko badaude 12 lagun izena emanda.

Inguruotako pertsona nagusi guztiek erabili ahal izango dute zentrua, bergaratarrek izan ezik, Bergaran bai baitago bat.

Zentru berri hau egiteko lanak datozen asteetan hasiko dira. Izan ere, udaleko Gobernu Batzordeak dagoeneko emana baitie baimena, baldin eta proiektuan desegoki zeuden xehetasun batzuk zuzenduz gero.

Aramaiotik Arrasatera autobusez

Aramaioko udalak bultzatuta, pasa den astelehenean Arrasate eta Aramaio lotzen dituen autobusa abian hasi zen. Zerbitzu berri hau, lan egunetan erabili ahal izango da, astelehenetik ostiralera bitartean. Santa Kruz plaza-tik irten eta Gesalibar, Garagartza eta Uribe auzoetan geldituko da. Bidaia, 105 pezeta balio du, Uribe auzoan hartu ezean, orduan, txangoak 75 pezeta balioko baitu. Era berean, egunero bi bidaia egingo ditu.

ORAINGOZ APIRILA ARTE

Goizean, 09:15ean irtengo da Aramaiotik eta buelta, eguerdiko 12:00etan izango da. Arratsalde, berriz, 17:00etan irten eta 20:30etan itzuliko da Aramaiora.



Autobus berriak Aramaion daukan geltoki berria.

Aramaioko Udalak zerbitzu berri hau apirila arte erabiltzea aurreikusi du. Gero, erabiltzaile kopuruaren arabera, mantendu edo kendu egingo du autobusa. Era berean, zerbitzuak 2 milioi peze-

tako kostua dauka. Urte osorako luzatuz gero 4 milioi pta. izango lirateke.

Aramaiotarrek begi onez hartu dute zerbitzu hau eta bati baino gehiagori primeran etorriko zaio.



Loramendi kirolak

%30

- Forro polarrak
- Prakak
- Txandalak
- Sudaderak eta abar

BEHERA PENAK!

Zapatilak

%20-50

San Andresen eta Garibain

OÑATI

1 Aurrekontuak

2.163 milioi pezeta izango ditu Oñatik 1999rako, iaz baino %6 gehiago. Horietatik 1.911 milioi pezeta udalera-ko izango dira eta 467 milioi, inbertsioetarako. Era berean, egingo duten inbertsiorik handiena, herriko plazan adokinak ipintzea izango da. Hain zuzen ere, hauxe da Herri Batasunak aurrekontuen aurka egitearen arrazoia. Alderdi politiko honen ustetan, gehiegizko diru-kopurua erabili behar dute lan honetan eta hobe litzateke bestelako ekin-tza kulturaletan erabiliko balira.

ARETXABALETA

2 Auzo-baserriak ikusgai

Herriko auzo eta baserriak ikusgai daude Aretxabaletako udaletxe zaharrean. Erakusketa, Aretxabaletako argazki taldekoek, Kapirixok eta Loramendi Kultura Elkartek antolatu dute eta urtarrilaren 17a arte egongo da zabalik. Make-ta batek, argazkiek eta ikusentzunezko bideo batek osotzen dute erakusketa.



BERGARA

3 Berrigararen gida

Berrigarak gaur banatuko ditu aurtengo gidak. 5.500 ale plazaratuko ditu bergaratar eta antzuolatarren artean

banatzeko. 172 orrialde dauzka eta hiru atal nagusitan banatuko da. Hasierako orrialdeetan, interes orokorreko telefonoak agertuko dira, ondoren, gida komertziala eta azkenik, telefono partikularrak.

ESKORIATZA

4 Eski-irteera

Bihar, goizeko 05:00etan izango da Eskoriatzako K.E.k aste-buru honetarako antolatutako eski-irteerara joateko autobu-saren ordua. Bi lekutara doaz eskiatzera oraingoan, bihar Cauteretsera eta etzi, Hauta-camera. Gaueko 21:00ak alderako, berriz, Eskoriatzan izango dira bueltan Oiartzungo Restopeak ohiko geldiuena egin ostean. Hurrengo eski-irteera, otsailaren 6-7an izango da, baina astelehen hone-tatik aurrera izena eman ahal izango da dagoeneko.

ANTZUOLA

5 Patxi Martutenera

Herriko udalak, Patxi Olabarria, preso dagoen gazte antzuolarra Martuteneko espetxean laga dezatela eskatuko du Barne Ministeritzako Era-kunde Penitentziarioen ardu-radunei bidalitako bi gutunen bitartez. Gutunok alkatearen izenean eta udalbatzaren ize-nean bidaliko dira.

Patxi Olabarria amaren hileta zela eta ekarri zuten Madrilatik Martutenera.

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua

DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN



BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 24 58

PIPPOL

taberna

BILLAR TXAPELKETA


Urtarrilak 22, ostirala
Arratsaldeko 20:00etan
Izenematea: 1.000 pta.

Sariak:

Lehena: 15.000 pta. + Bildutakoaren %50

Bigarrena: 10.000 pta. + Bildutakoaren %30

Hirugarrena: 5.000 pta. + Bildutakoaren %20



LAM3 Joku Automatikoak • Tel: 943 76 02 43

Luis Ezkurra / 50 urte Argentinan

Luis Ezkurra Bedia 1949. urtean Argentinara joan zen eta ordutik hantxe egin du bizimodua, Buenos Airesen. 75 urte ditu, alarguna da eta 32 urtez argiteria lantegi batean ibili ondoren, erretirata dago orain. Harri-garria badirudi ere, elkarriketa hau euskaraz egin genuen. Izan ere, nahiz eta urte ugari kanpoan igaro, Luisek euskara ondo baino hobeto gorde du buruan, Euskal Herria bihotzean moduan.

— Zer dela eta joan zinen harantz?

— Ni orduan fraide nintzen, Oñatiko agustinoetan. Bi urtez Ingalaterran ingelesa ikasten izan eta gero, Argentinara bidali ninduten "Colegio Belgrano"-n ingeles irakasle izateko. Baina, han bost urte egon ostean, aspertu egin nintzen. Ez nuen bokaziorik. Fraide izateari utzi eta nire bizimoduari ekin nion. Erromatik ezkontzeko baimena ere lortu nuen eta azkenean ezkondu ere egin nintzen.

— Ez duzu inoiz Euskal Herrira itzultzea pentsatu, batez ere fraide izateari utzi zenionean edo?

— Buf! Orduan etxekoak haserre zeuden fraide izateari utzi niolako, beraz, egoikiago iruditu zitzaidan Argentinan gelditzea.

— Noiz etorri zinen lehenengo aldiz?

— Franco hil zenean. Eta harrezkero gehiagotan ere etorri izan naiz: Futbol Mundiala izan zenean, Sevillako Expo-n, ondoren 1996an eta aurten berriz.

— Eta zelan ikusi zenuen Mondragoe orduan?

— Lehenengo inpresioa, oparotasuna eta goraldiarena da. Jendea alai bizi dela dirudi. Argentinan, eztabaidarik handienak diru kontuekin lotutakoak izaten dira.

Gainera, Mondragoe oso dotore dago. Enparantzak, lorategiak...

— Nola lortu duzu euskara hain ondo gordetzea?

— Han badaude gerra

ostean joan ziren mondragoetar batzuk, eta noizean behin eguna elkarrekin pasatzen dugu. Batez ere Mondragoeko gauzei buruz hitz egiten dugu. Herriarekiko lotura beti gorde dugu. Oraingoan ere badauzkat hara eramateko enkarguak.

— Eta, bestelako euskaldunekin, zer?

— Euskaldun ugari dago han, baita Euskal Etxeak ere. Hemengo ohiturak gordetzen dituzte, euskara ere erakusten dute. Argentina osoan 50 baino gehiago daude. Behinero joaten naiz.

— Gehien faltan duzuna?

— Hemengo mendiak.

— Itzuliko zinake Arrasatera?

— Nire hezurak hemen geldi daitezen gura dut. Niretzat euskaldun izatea dagoen harrotasunik handiena da. Argentinan euskaldun baten hitzak, idatzitako edozein dokumentuk baino gehiago balio du. Euskalduna hitzeko gizona da han, zuzena.

Buenos Airesen euskaldunen izenak dituzten 120 kale baino gehiago daude, zerbait ona egin dugun seinale.



“Argentinan euskaldun baten hitzak, idatzitako edozein dokumentuk baino gehiago balio du”.

Pavimentos AGR
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA	MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA
--	---

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 943 76 59 39 / 943 76 59 72 • Fax: 943 76 25 72



UME GARAIAK OROITZEN

Asteburuan Holiday zirkoa egon da Arrasaten, haur askoren gozamenerako. Guraso ugari ere hantxe izan ziren haurra eraman beharraren aitzakiarekin, eta ziur haur asko baino hobeto ibili zirela.



HORI DA KEMENA, HORI!

Jeneralean, urtea agurtzeko modu ugari daude, baina benetan umoretsuena gazte hauek urteroko ohiturari jarraiki egiten dutena da: "Makilak" lagun taldekoek gabon-zahar egunean Udalatx tontorrera igotzen dira. Han etxaflerua bota, merienda egin, urteari adio esan eta urte berria itxarotera. Aupa mutilak!

JUAN RAMON ARANDO AZPIRI

TRATAMENDUAK:

**MEDIKUNTZA
ERREUMATOLOGIA
MASAJEAK**

- Minak
- Giharrak
- Zainak
- Hezurrak

Olarte, 43 behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 11 / 943 79 81 01

"EDERTU"

Ileapaindegia • Solariuma • Depilazioa



San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • ARRASATE



ABESBATZA BEREZIA

Gabon egunean Merced eskolatik abesbatza berezia irten zen kalera kantura. Euretariko batzuk, abenduaren 20an Victoria Eugenia antzokian egin zen Gabon kanten jaialdian parte hartu zuten. Iturbide egoitzatik pasatu ziren eta hangoak abesti eta goxokiekin alaitu zituzten.

LARANJA GOZOAK GESALIBARREN

Gesalibar auzoko Abarrategi Goikoa baserriko Maria Luisa Ozaetak eta bere semea Josebak egun berezia izan zuten abenduaren 28an. Etxeondoan duten laranja

arbolak inoiz baino fruitu gehiago eman die aurtan: 122 ale eder, gozo eta usaintsu. Marka ezin hobea, kontuan izanda iazko bukaera aldean egin zituen izotzak.



LEHEN MEZA

Igandean Aretxabaletako parrokian, meza berezia izan zen. 15 urtez Donostian, Zaragozan, Valentzian eta Erroman ibili ostean, Iñaki Sarasuak bere lehen meza esan zuen. Benetan ondo ematen zuen han goian Iñakik!



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Kemper-Arrasate: senid

Kemper Britainian dago, Fran-tziako iparsortaldean. Gehie-nok ez badakigu ere, Kem-per-Arrasate izena duen elkar-te bat dago han, Arrasate eta Kemper senidetzeko asmoa duena. Elkarteko kide bi, Patrick Labasque idazkaria eta Martine Le Brumant, Mondragoen izan genituen Santamasetan. Hirugarren aldia da gure artean izan direla. Bai-na nondik dator bretoiek Arrasaterekiko erakutsi duten interesa?

Euskaldunekiko harre-mana aspaldikoa da Britainian. Bigarren Mundu Gerran ihes-lari eskaldun askok hantxe aurkitu zuten babes-a. Frankismoaren garaian eta beranduago ere, bretoi askok beren etxeetako atea parez pare ireki zizkieten hemengo iheslariari. Patrick-ek eta Martinek diotenez, hortik dator euskaldunekiko jakinmina eta miresmena, batez ere bretoi abertzaleen artean.

Zein herrirekin senidetu, baina? Aztertzen hasi ziren eta Arrasate aukeratu. "Arrasaten elementu interesgarri asko ikusi genituen: kooperatibismoa batetik, mundu guztian sona handia duena; euskaltzaletasuna eta euskara aurrera ateratzeko borondatea; abertzale-tasuna... Horregatik guzti-gatik hautatu genuen Arrasate".

KEMPER-ARRASATE

Esan eta egin. Lehen harremanen ostean, eta ikusirik Arrasaten ere ondo hartu zutela ideia, 1997an Kemper-Arrasate elkarte sortu zuten. Estatutuak eta zuzendaritza ere onartu zituzten. Loïc Philip-



Santamasetan izan genituen Arrasate-Kemper elkarteko kideak Mondragoen.

pon da lehendakaria. Patrick Labasque idazkaria eta Jean-Pierre Grandjean diruzaina.

Estatutuek dioten moduan, elkartearen helburua da Kemper eta Arrasateren arteko senidetasuna bultzatuko duen batzordea sortzea. Horretarako bitarteko hauek erabiliko ditu: argitalpenak, erakuske-

tak eta hitzaldiak.

Bretoiek sortu dute elkarte-a, baina arrasatearrek oraindik ez. "Lehenik eta behin harremanak sortu nahi ditugu, dinamika bat. Gero etorriko dira erakundeen arteko harremanak. Sentimentu eta ideia abertzale duen edonori egiten diogu dei, gurekin lan egin

dezan", diote arrasatearrek.

ARRASATEN BISITAN

Hiru aldiz etorri dira kemper-tarrak Arrasatera. Birritan Santamasetan. Beste behin iragan uztailean. "Nik liburuetan aztertu nituen kooperatibak, baina hona zatotz eta beste kontu bat da. Atentzioa eman

detasun proiektua



Bretainia (Breiz)

Frantziako estatuaren Armorika penintsula hartzen du. Lau departamentuk osatua da: Cotes-du-Nord, Finistere, Morbihan eta Ille-et-Vilaine. 33.980 km² eta 3.703.384 bizilagun ditu. Nafarroaren antzera, berez Bretainiako ere den Loire-Atlantique departamentua (hiriburua: Nantes), eskualde honetatik kanpo geratu zen Frantziako Iraultzaren ondoren. Ekonomiari dagokionez, zerbitzuak eta ikerkuntza dira garrantzitsuak, turismoa eta industria bezala. Bretainiako berezko hizkuntza breizera edo bretoiera da, hizkuntza zelta. 300.000-400.000 lagunek hitz egiten dute, populazioaren %10 gutxi gorabehera.

KEMPER

- **Sorrera:** VIII. mendean.
- Finistere departamentuko hiriburua.
- **Bizilagunak:** 60.000.
- **Turismoa:** 500.000 turista urtero.
- **Hizkuntzak:** frantsesa eta bretoiera.

Mondragoetarren ikuspegia

Arrasatearrak birritan izan dira Kemperren. "Orain guri tokatzen zaigu hara joatea. Ikusiko dugu".

Kempetarrek orain ia bi urte sortu zuten Kemper-Arrasate elkarte. Hala ere, arrasatearrek ez dute presarik ez elkarte sortzeko ("sortuko dugu garaia iristen denean") eta ezta harremanak ofizialtzeko ("lehenengo oinarrian egin behar dugu lan eta gero joko dugu gorago") ere.

Xabier Zubizarreta alkate ohiak azaltzen ditu harreman horien nondik-norakoak. "Somatzen genuen gutxiengo nazionalak ezagutzeko beharra. Horregatik, etorri zirenean ea zer eginzitekeen galdetzera, aukera ezin hobea zela ikusi genuen loturak sendotzeko. Han izan ginenean konturatu ginen badirela azaleko aldeak bien artean, baina funtsean bizi ditugun arazoak izatera berekoak dira. Han badago sentipen abertzale bat gaur egun batik batik kulturaren agertzen dena. Oso interesgarria da nazio txikien arteko saretxo bat sortzea eraikitzen ari den Europa hone-

tan. Horretarako bitarteko guztiak erabiliko ditugu: kultura arlokoak, ekonomikoak, etab."

Jesus Garmendia MUKo Humanitate Fakultateko dekanoa ere orain dela gutxi sartu zen talde honetan, herri bien arteko senidetasuna bultzatzeko. "Europagintzan ari gara eta gure ezaugarrien artean elkartasuna da handienetako bat. Horregatik, kontuan izanda zenbait arlotan aurreratuta gabiltzala, laguntzeko prest gaude. Kultura eta unibertsitateen arteko harremana lantzea oso interesgarria iruditzen zait".

Eugenio Iturriotz hasieratik dabil proiektu hau bultzatzen. Esker oneko hitzak baino ez ditu Kemperrekiko: "Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, zeren izugarri ondo hartu gintuzten. Hunkigarria izan zen euskaldunekiko erakutsi ziguten elkartasuna". Horregatik, soseguz eta irekitasunez jokatu behar dela dio, herri biok irabazteko asko dugulako senidetasun honetatik.




JESUS GARMENDIA

"Europagintzan ari gara eta gure ezaugarrien artean elkartasuna da handienetakoa"



EUGENIO ITURRIOTZ

"Hunkigarria izan zen euskaldunekiko erakutsi zuten elkartasuna"



Patrick Labasque



Martine Le Brumant

digu jendearen artean dagoen komunitarismoak, jendearen arteko hurbiltasunak. Nik uste dut gu formalistagoak garela. Bestetik, erabakiak hartzeko modua eta erabakitakoa gauzatzeko era ere eredarriak izan dira guretzat", dio Patrick-ek.

Hemen izan direnetan, kooperatibak ezagutzeko parada izan dute, AED, AEK, euskarazko herri komunikabideak eta beste hainbat toki interesgarri. ■

Joxe Aranzabal

Zirt-Zart: estetika berriaren zentrua

Nuria Sanchezek 19 urte baino ez zituen Zirt-Zart ile apaindegia zabaldu zuenean. Urteak zeramatzan Gateizen ikasten eta lan egiten. Baina berea izango zen ile apaindegia nahi zuen eta horixe egin zuen bere herrian bertan, Aretxabaletan. Jadanik zazpi urte inguru igaro dira, baina Nuriak ilusio berarekin segitzen du atxalbaltarren ileak mozten eta moldatzen.

Aitortzen duenez, ile apaindegia zabaldu eta ondorengo hilabeteak ez ziren bat ere samurrak izan. Ilea mozten abilezia handia du, baina zenbaki kontuetan ez zen ondo moldatzen, eta gastuez eta irabaziez arduratzeko aditu bat dauka.

Atxalbaltarrak ez zeuden ile apaindegi berritzaileetara ohituta. Gainera, lehen aldian Zirt-Zart ispiluz josita zegoen eta bezero asko, ile apaindegira sartu nahian, ispiluen kontra jotzen ziren. Baina bitxikeria askoz gehiago bizi izan dituzte.

KALIFORNIARA BIDAIA

Gaur egun, ordea, jende asko hurbiltzen da. Batez ere emakumeak dira, itxura aldatzeko asmoz, joaten direnak.



Nuriak harro erakutsi zigun bere ile apaindegia.

Dena den, noiz behinka gizonen bat agertzen da ilea moz diezaioten. Izan ere, Zirt-Zarten ez dira ilea moztera mugatzen: manikura eta makilajeaz ere arduratzen dira hango sei langileak. Arantzazu Larrinaga saloiko arduraduna da. Estilistak, berriz, Enart Rojo, Yolanda

Fernandez eta Sara Picado. Marisa Fernandez da bezeroei harrera egiteaz arduratzen dena. Ilea apaindegiko nagusia eta sortzailea, berriz, Nuria Sanchez.

Atxalbaltar gazte hau Kaliforniatik itzuli berria da. Han hilabete batzuk igaro ditu estetika teknika berriak ikas-

ten. Nuriak kosmetika produktu ekoizle ospetsu baten lantegiak eta laborategiak bisitatu ditu. Oso pozik itzuli zen gurera Estatu Batuetan bizi izandako esperientziaren ondoren. Orain bere ile apaindegian lanean darrai, boladan dauden ile mozketak egiteko prest.



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Alokairuzko etxeak inoiz baino garestiago

Arrasatek bizi duen egoera ekonomiko onak eta etxebizitzetan dagoen eskaintza urriak izugarri igo dituzte etxebizitzaren alokairuen prezioak.

Zenbait kasutan, alokairuzko etxebizitzak hilean 70.000-80.000 pta inguru dabilta. Inguruko herri-rik garestiena da horretan Arrasate: Eskoriatza baino %20 garestiago, Aretxabaleta eta Oñati baino %15 eta Bergara baino %10.

Prezio igoerarik nabarmenenak erdigunean ezezik, Erguinen, San Andresen eta Uribarrin gertatzen dira. Gehienak Mondragon Unibertsitateko ikaslez eta irakaslez bete dira, eta baita kooperatibetan lanean ari diren langileekin ere. Beste aldean Musakola dago: gutxi nahi dute han etxebizitza alokatu, nahiz eta Eroski, kiroldegia eta institutua ere hantxe egon.

Zenbateraino konponduko dute egoera herrian egingo diren etxe berriek? Zaila da esaten, zeren eskaintza ez baita izugarria izango. Zerrajeran 280 etxebizitza egingo dira, horietatik 80 babes ofizialekoak. Legarren, berriz, 80 bat etxebizitza egin litezke. Kontuan badugu egun hauetan uda-

letxera Zerrajerako babes ofizialeko etxeetarako izena eman guran joan den jendetza, ez dirudi eskaria asko motelduko denik.

Gogoan izan, gainera, maileguen interesak inoiz baino merkeago direla eta, jendea orain dagoela egoerarik onenean zorretan sartzeko.



Zerrajeran 280 etxebizitza egingo dira.

Euroa

Noiz arte izango ditugu euroak eta pezetak elkarren ondoan?

Aurtengo urtarrilaren leian Europako Bankuak euroaren balio finkoa ezarri zuen Europako Batasuneko herrien diru guztiekin. Orain badakigu 2002ko ekainaren 30a arte euro batek 166,38 pezeta balioko duela.

2002ko urtarrilaren 1a arte pezetak baino ez ditugu erabiliko poltsikoetan, nahiz eta orain euroak ere burtsan kotizatu. Orduan euroak kaleratuko dira eta sei hilabetez, batzuk eta besteak erabili ahal izango ditugu. 2002ko ekainaren 30a arte. Orduetik aurrera, euroak baino ez.

Euro baten balioa

166,3 pta



URONDO


Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Defentsa ederra

Saukelu Scream eta Pepelus taldeek hiruna berdinu zuten aurtentz jokatu duten lehen norgehiagokan. Baina ikusten duzuen bezala, lan handia egin behar izan zuten Pepelus taldekoek, aurkariek sekulako sarea jarri zuten eta atea inguruan. Lau, baten aurka. Proporzio horretan, ez da lan erraza atea galditzea.



Laburrak

■ URTE HASIERA GOGORRA

1999a ez dute talde guztiek horren gogor hasi. Batzuei bixamonak gehiegi irauin izan die eta ez dute euren betebeharrak bete. Gauzak horrela, bi talde gutxiago daude Zaldibarko futbito txapelketan. Kasu honetan Lauterbrunnen eta Aterpe Kafetegia izan dira. Lehen hauetxe izan ziren beste bi kaleren ondoren puntuak

jaso zituzten taldeak eta oraingoan euren egin dute kale. Jadanik lau dira bidean gelditu diren futbito taldeak. Eta horri esker lau izango dira astero, lehen itzulia amaitu arte, jokatu gabe aldeko puntuak lortuko dituzten taldeak.

■ B TALDEAN SAILKATZEKO AUKERAK

Kontuan izanda kanpoan gel-

ditu diren lau taldeak B multzokoak direla, nahiko erraza izango zaie gelditzen diren hamalau taldeei bigarren aldirako txartela lortzea. Izan ere, bigarren aldi honetara pasatzea multzo bakoitzeko hamar onenek eta hamaikagarren bi onenek lortuko dute. Gauzak horrela, B multzoko lau talde baino ez dira kanpoan geldituko.

■ GOLAK A TALDEAN

Aurtengo lehen jardunaldian A taldean izan dira goleatzaile gehienak.

Hiru taldek hamarna gol lortu dituzte eta Serengeti HCK, berriz, hamahiru. Bera izan da aurtengo lehen jardunaldiko talde goleatzaile nagusia. Beste bi taldeetan zazpi izan dira lortu dituzten gol kopuru handiena.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Sailkapenak



Hurrengo partidak

Urtarrilak 16, larunbata Zaldibar

09:50 Aurrera Bolie - Kokajun.
11:00 Etxe Mob. - Diego Ant.
12:00 Naran. Mec. - Txantxiku
13:00 Lontxo Tab. - Balon Rojo
14:00 Dribling - Eusko Label
15:00 EPEH - Branka Tab.
16:00 Rex 23 - Kom. Alpargat
17:00 KKJauri - Irati STS
18:00 Jako Al Rey - Jotakabau
19:00 Insert Coin - Makai

Iturripe A

12:00 Garaje Oscar - Zotz
13:00 Ke Oxtias! - Alai Gozoki
14:00 Potroak - Betrayer
15:00 Bukanak - Xhassss
16:00 Kamasu. - Aita Me. 2010

Iturripe B

13:00 Orl. Pirata. - Serengeti HC
14:00 Constr. Luso - Totem
15:00 Sau. Scream - Surkos
16:00 Decadencia - You Know

Urtarrilak 17, igandea

09:50 Potrosorri - AT Celaya
11:00 Leya - Aldibi
12:00 Sokoakoak - Bar Nuevo
13:00 Rotor de Bolbogrado - Pepelus

Atsedena:

B taldea: DKB, Los Heredia
D taldea: Fraguél Gol

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ORLAN. PIRATAS	9	9	0	0	60	23	18
LONTOXO TAB.	9	7	2	0	55	16	16
PEPELUS	9	7	2	0	36	21	16
AC SURKOS	9	6	2	1	54	35	14
XHASSS UGARTE	9	6	1	2	58	33	13
INSERT COIN	9	6	1	2	31	28	13
ALDIBI	9	5	0	4	52	25	10
LEYA	9	5	0	4	31	25	10
KOM. ALPARGATA	9	4	1	4	50	27	9
KE OXTIAS	9	4	0	5	35	28	8
SAUKELU SCREAM	9	3	1	5	23	27	7
SERENGETI HC	9	3	0	6	29	41	6
BUKANAK	9	3	0	6	30	50	6
BALON ROJO	9	2	2	5	21	53	6
REX 23	9	2	0	7	24	50	4
ALAI GOZOKIAK	9	1	1	7	23	49	3
MAKAI	9	1	0	8	20	51	2
ROTOR BOLBOG	9	0	1	8	16	66	1

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TXANTXIKU KIR.	9	8	0	1	70	16	16
KKJAURI	9	7	2	0	44	21	16
IRATI STS	9	7	1	1	55	21	15
NARANJA MECAN.	9	6	2	1	73	32	14
AURRERA BOLIE	9	7	0	2	40	23	14
GARAJE OSKAR	9	6	1	2	45	24	13
LOS HEREDIA	9	5	1	3	22	31	11
KOKA JUNIORS	9	4	2	3	27	28	10
DKB	9	4	1	4	35	29	9
ZOTZ	9	3	2	4	37	35	8
AT CELAYA	9	3	1	5	26	38	7
DIEGO ANTONIO	9	2	3	4	28	42	7
POTROSORRI	9	3	0	6	26	65	6
LAUTERBRUNENN	9	1	3	5	22	39	5
BORROCK & ROLL	9	2	1	6	20	28	5
ATERPE KAFETEGI.	9	1	1	7	20	51	3
PUB ARROGOI	9	1	0	8	7	28	2
ETXE MOBEL	9	0	1	8	17	63	1

Emaitzak

A TALDEA

Bukanak 10 - Alai Gozokiak 1
Lontxo Taberna 3 - Makai 2
Insert Coin 5 - AC Surkos 5
Saukelu Scream 3 - Pepelus 3
Rex 23 2 - Leya 10
Orlando Piratas 10 - Aldibi 6
Ke Oxtias 5 - Komando Alpargat 3
Rotor Bolbo. 0 - Xhassss Ugarte 6
Balon Rojo 3 - Serengeti HC 13

B TALDEA

Borroack & Roll 0 - Txantxiku 1
DKB 1 - Pub Arrogoi 0
Los Heredia 0 - Koka Juniors 2
Aurrera Bolie 1 - Irati STS 5
Etxe Mobel 2 - Potrosorri 7
Garaje Oscar 6 - AT Celaya 3
Naranja Mec. 4 - Diego Antonio 4
KKJauri 1 - Lauterbrunnen 0
Aterpe Kafetegia 0 - Zotz 1

D TALDEA

Constr. Luso 1 - Branka Tab.6
Petroak 7 - Eusko Label 3
Dribling 7 - You Know 3
Decadencia 2 - Aita Menni 2010 3
Fraguel Gol 3 - Jako Al Rey 3
Sokoakoak 2 - Jotakabau 3
Kamasutra 3 - Totem 3
Betrayer 4 - Bar Nuevo 6

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
YOU KNOW	8	7	1	0	42	15	15
AITA MENNI 2010	8	6	1	1	34	21	13
DRIBLING	8	5	3	0	36	23	13
JOTAKABAU	9	6	1	2	20	18	13
POTROAK	8	5	1	2	38	23	11
EPEH	8	4	3	1	34	27	11
SOKOAKOAK	9	5	0	4	31	30	10
TOTEM	9	4	1	4	30	22	9
BRANKA TABERNA	8	3	3	2	35	28	9
FRAGEL GOL	9	3	3	3	28	28	9
BAR NUEVO	8	3	2	3	28	27	8
DECADENCIA	9	2	3	4	20	18	7
KAMASUTRA	8	2	2	4	31	28	6
JAKO AL REY	9	1	3	5	27	34	5
BETRAYER	8	2	1	5	25	33	5
EUSKO LABEL	9	0	0	9	20	61	0
CONSTR. LUSO	9	0	0	9	12	55	0

ARRASATE  **KIROLAK**
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan
Setatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

JUBAR
ATEAK. S.L.®

• BURDINAZKO ATEAK
• ETA PERTSIANAK.
• AUTOMATISMOAK.
• KONPONKETAK.
Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

LOS VAQUEROS PRAKAK:
2 PEPE - 5.995 pta.
PANAZKOAK - 2.995 pta.
Zerkaosteta, 5 •
Tel.: 943 79 97 55

Atletiko Taldeko korrikalaria

MIKEL APRAIZ

“Konforme nago Euskal Herriko gutxieneko denbora lortzearekin”

— **Asteburuan Gipuzkoako txapelketan aritu zinen. Zer moduz joan zen?**

— 60 m.ko lasterketa 7'74an egin nuen. Dena den, hobeto amaitzea espero nuen. Sorbaldan mina hartu nuen korrika hasi nintzenez eta ezin izan nintzen nahi bezala aritu. Agian hori gertatu izan ez balitzait denbora hobe lortuko nukeen.

— **Maila handia dago gazteen artean?**

— Zaila da lehen tokietan aritzea. Gipuzkoan maila handia dago, baina hortxe sartzen saiatuko gara.

— **Ze lasterketatan aritzen zara?**

— Pista estalian 60 m.ko lasterketetan bakarrik. Bestela 100 eta 300 m.etan aritu izan naiz. Nahiago izaten ditut lasterketa motzak, askoz ere azkarrago amaitzen dituzu.

— **Zein da zure helburua?**


— Euskal Herriko gutxieneko denbora lortzearekin konformatzen naiz. 60 m.etan 7'90 da gutxieneko denbora eta asteburuan gutxiago egin nuen, beraz ez zait horren zaila izango.

— **Zer behar da honelako lasterketetan?**

— Marka ona egiteko hanketan indarra izan behar da, denbora ahalik eta gutxienean abiadurarik azkarrena lortzeko.

— **Pista berriak egingo direla eta zuen iritzia jaso beharko luke Udalak?**

— Entrenatzailearekin behintzat egon beharko lirateke.



SASKIBALOA Nagusi Iturripen

Arrasate Saskibaloia talde nagusia sailkapene-ko hirugarren tokian dago. Joan den larunbatean garaipena eskuratu zuen etxean jokatu zuen norgehiagokan. Aurrez aurre Iruñeko San Cernin taldea izan zuten. Mondragoetarrak izan ziren nagusi jokalekuan eta emaitzak horrela adierazi zuen. 77 eta 54 irabazi zuten mondragoetarrek. Asteburu honetan Azpeitiko Jostaldi taldearen aurka arituko dira. Aurreko itzulian bi puntuz galdu zuten eta oraingoan errebantxa lortzekotan abiatuko dira Azpeitira. Norgehiagoka larunbatean, 18:00etan izango da.

ERRUGBIA Sailkapeneko bigarrenak

Senior mailako Arrasateko Errugbi taldea, gelditu barik dabil. Urte berrian ere garaipena lortu zuen etxean eta jadanik bigarrena da euskal ligako senior mailan. Patxi Gorosabelen mutilak denboraldiko bigarren itzuliari ekin zioten joan den larunbatean Garagartzako errugbi zelaian. Arratiako Txekorraren aurka neurtu ziren erabat lokaztutako zelai batean. Horrek jokoa hain ikusgarria ez izatea eragin zuen, baina mondragoetarrek ez zeuden denboraldi onari bizkarra emateko prest eta garaipena lortu zuten. Galtzen hasi ziren arren, Joseba Maidaganek bere taldeak lortu zituen 9 puntuak lortu zituen eta mondragoetarrei garaipena ematea lortu. Azken emaitza 9 eta 5 izan zen.

ESKUBALOA Urte berrian ere ezin

Bernardo Balerdiren taldeak dirudi urte berriarekin emaitzak aldatzekotan denik. Arrasate Eskubaloia taldeak berriz ere galdu zuen joan den asteburuan. Aurrez aurre Escolapios taldea izan zuen, 29 eta 15 galduz. Aste honetan erronka berri bat izango dute mondragoetarrek. Barakaldon arituko dira larunbatean. Sailkapenean azken tokian segitzen dute, punturik gabe. Maila baxuagokoei dagokienez, joan den asteburuan gazte mailakoek 20 eta 22 galdu zuten eta aste honetan jai izango dute. Haur mailakoek, berriz, etxean arituko dira Bergararen aurka; larunbatean, 16:30etan.

ATLETISMOA Emaitza onak Anoetan

Gipuzkoako pista estaliko txapelketa jokatu zuen asteburuan Anoetan. Arrasate Kiro-lak Atletiko taldeak urrezko eta brontzezko dominak lortu zituen pertika jauzian eta 800 m.ko lasterketan, hurrenez hurren.

Jonathan Perez gazteak irabazi zuen urrezko domina. Jauzilari mondragoetarrek 4 metro eta 10 zm.ko jauzia egitea lortu zuen. Brontzea, Arrasateko taldean ari den oñatiar batek lortu zuen. Felix Sanchezek, hain zuzen ere. Txantxikuarra 800 m.ko lasterketan aritu zen eta hirugarren lekuan gelditu zen, 2 minutu eta segundu bateko denborarekin.

Euskal Herriko txapelketa absolutuak urtarilaren 23an eta 24an jokatu dira eta arrasatearrak ere hor izango dira.

Mondra talde nagusiak entrenatzailez aldatu du

Jabier Letona gasteiztarra izango da preferente mailako Mondra futbol taldeko entrenatzaile berria. Astearte iluntzean iritsi zen Atxabalpera. Hala ere, aurreko egunean iritsi zen akordio batera Mondraren zuzendaritzarekin.

98-99 denboraldian futboleko talde nagusia izan dituen emaitza txarrek eraman dute zuzendaritza erabaki hau hartzera. Juanina Garaik emaitza onak lortu zituen nesken talde eta gazte mailako taldearekin, baina ezin izan du talde nagusia bide onetik zuzendu. Dena den, kontuan izan behar da bera bakarra dela eta taldean 22 jokalarik daukela. Horixe adierazi zigun

berak, astearte iluntzean erabat minduta zuzendaritzak hartutako erabakia zela eta.

BATETIK BESTERA


Gasteiztar honek hainbat talde izan ditu bere gidaritzapean azken urteotan. Baina aurretik jokalarik gisa ere aritu zen. Aurrera de Vitoria taldearekin egin zituen bere jokalaritza urterik gehienak. Handik Errioxara, Gasteizko Michelin taldera eta gero Mondra ere etorri zen. Baina ez zuen Arrasaten denbora luze egin, belaunean izan zuen haustura garrantzitsu bat zela eta.

Azken urteotan entrenatzaile lanetan aritu da. Orain dela bi urte Alaves taldean ibi-

li zen. Haro taldea ere zuzendu du. Honez gain, gazte eta haur mailako taldeak ere zuzendu ditu, Errioxako gazte mailako selekzioa, esaterako.

MAIATZA ARTE

Jabier Letona *mister* berria maiatza arte arituko da Mondra taldean. Garai batean talde zerrajeroko jokalaria izan zen gasteiztar honek gauzak argi dauzkala dirudi. Momentuz maiatza arte arituko dela hitz eman dio zuzendaritzari eta gero ikusiko duela. Gauzak nola ateratzen diren ikusi nahi du Letonak ezer erabaki baino lehen. Gainera, eta berak adierazi zigunez, "ira-



Jabier Letona, *mister* berria.

baztea atsegin dut eta diziplinaz hori lortzea espero dut".

Dena dela, aldeko emaitzak lortzen ez baditu, ikusi beharko da zer egiten duen Mondraren zuzendaritzak.

Mendia, trabesiazko eskia eta eski alpinoa

Besaide Mendizale Elkarteak jadanik kaleratu du 1999ko negurako ekintza eskaintza. Abendua arte 14 irteera antolatu ditu. Nafarroara, Bizkaira, Arabara eta Pirinioetara izango dira irteerok. Egingo duten hurrengo hil honen amaieran izango da. Mendi itzuliaren ondoren, sagardotegira joango dira mendigoizaleak. Horien artean daude Euskal Mendizale Federazioko 75. urteurrena ospatzeko egingo diren mendi irteerak.

Hori ospatzeko Nafarroako Federazioak "Goazen

Mendiriz Mendi" proiektua antolatu du. 75 mendizale elkartek federazioak banatzen dituen "makilak" Euskal Herriko 75 mendietara

edo gailurretara igotzea da helburua. Besaidek irailaren 19an egingo du azken txanpa hau, oroimen egunarekin batera.



Irailaren 19an igoko dira Besaidera mendigoizaleak.

ELURRETARA IRTEERAK

Eski alpinoa eta mendiko eskiari dagokienez, asteburu honetan hasita eta martxoaren 27ko asteburua arte Formigalera, Alpeetara eta Tena Bailara-Astunera joango dira.

BESTELAKO EKINTZAK

Segurtasuna goi mendian, arroila jaitsierak eta haitz eta izotz eskalada dira antolatutako ikastaroetako batzuk. Bestalde, eta gazteei zuzenduta espeologia, mendikleta, eskalda eta bestelakoak ere egingo dira.

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

Txikilandia ezinhobeto

Hamargarren urtea bete du aurten Txikilandiak. Aurrengo bost urteetan Arrasateko Udala arduratzen zen jolastokiaren antolaketaz. Sei garren urtean, ordea, Txatxilipurdiren esku utzi zuen udalak ardura hori.

Urtarrilaren 2tik 5era bitartean egon zen zabalik, Musakolako Kiroldegian, egunean zazpi orduz: goizeko hamaiketatik ordubiak arte eta arratsaldeko lauretatik zortziak arte. Egun horien guztien artean 4.000 bat umek bisitatu du Txikilandia, eta horretaz gain, hauen gurasoak eta zenbait gazte ere joan omen da, ikustera.

Bi urtetik hasi eta 13-14 urtera bitarteko gazteak joan ohi dira Gabonetako jolastokira, eta hori dela eta, adin bakoitzarentzako guneak egokitu behar izan dituzte, bederatzigunetan banatu baitute parkea.

KALITATEA

Eider Otxoa Txatxilipurdiko arduradunak urte asko daromatza Gabonetako parkearen antolaketan lanetan. Berak adierazi digunez, "urtero hobetzen saiatzen gara, haurrentzako ekimen berriak asmatuz, gune berriak jarritz... Dena den, aurten leku faltan aurkitu gara. Gainezka egon da kiroldegia, eta hori dela eta, datorren urtera begira zerbait pentsatu beharrean gaude". Kalitatearen erronka hori aurre egiteagatik, haurrek ederki pasatzeaz gain, guraso askok zoriondu dituzte lanean jardun duten Txatxilipurdiko begira-leak.

BERRIKUNTZAK

Aurten izan du berrikuntzarik Txikilandiak. Alde batetik,



Umeak liluratuta Roxali eta Magaliren ipuinak entzunez.

bertaratu diren haurrek beren jantziak gordetzeko gelatxo bat izan dute. Horretaz gain, Txikilandia lehiaketa ere izan da: Bizikleta bat zozkatu dute haurren artean, eta irabazlea Jon Lizarralde arrasatearra izan da.

Eider Otxoak esan duenez, eskuorri eta hormirudiaren azalak ere izugarritzko garrantzia du: "azken batean, hori da parkearen aurpegia erakusten duena. Iban Astondo da bere egilea, eta lan handia egiten ari da, urtero-urtero Txikilandia aurpegia berak erakusten baitu".

ANTOLAKETA

Umeentzako jolastoki hau antolatzeak lan handia eskatzen duenik ezin da ukatu. Horixe eman digu aditzera Eider Otxoak: "Hiru bat hilabete eskatzen du montaje hau guztia antolatzeak. Izugarritzko lana da, baina merezi du. Haurrek nola pasatzen duten ikusteak, horrelako bost egi-

teko indarra ematen dizu". Eabada, luzaroan jarraitzen duten lanean Txatxilipurdikoek. Eiderrek esandako bost horiek

ea horien ostean etorriko den piloari hasiera ematen dioten aurrengo bostak baino ez diren.

Adinekoen, haurdunen eta gazteen moda desfilea

Almen ikastetxeak hirugarren adineko, haurdun eta gazteen moda desfilea antolatu du urtarrilaren 22rako. Arrasateko Amaia antzokian izango da, arratsaldeko 19:00etan. Sarreraren bidez jasotako dirua "Jabilo" gazte arrasatearraren familiari emango zaio.

3. ADINEKOEKIN HARREMANAK

Desfile hau antolatzen Almeneko DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleak ibili dira, "bizikidetasuna" ikasgaiaren barne. Ikasgai honen helburua gizarteratze egokiagoa eta elkarbizitza


osasuntsuagoa lortzea da, eta oraingo honetan 3. adinekoekin harremanak sendotu nahi dituzte.

Olazar eta Basotxo jubilatuen etxeetako eta Iturbide egoitzako nagusiek lagundu diete ekimen hau aurrera eramaten. Sarrerak salgai daude, 16 urtetik beherakoentzat 250 pta.tan eta besteentzat 500 pta.tan. Eskoriatzan ondorengo leketan daude eskuragai: Olazar jubilatuen etxean, Dorleta liburudendan eta Almenen; Aretxabaletan Basotxo jubilatuen etxean eta Arlutz tabernan, eta Arrasaten, Iturbide egoitzan eta Eskiñan.

NICK TWILLEY, JEMBE IKASTAROETAKO IRAKASLEA

“Mundua ulertzeko modu diferenteak daude”

Nick Twilleyk ingelesak indiar eta afrikarrekin ikasi zuen Jembea jotzen. Tabla, indiako perkusioak, gitarra eta flauta ere jotzen ditu. Musika mintzaira erabiltzen duen modu bertsuan erabiltzen saiatzen da. Galeseko mendietan zaletu zen danborrez. Elkartasuna lortzeko modu gisa jotzen zuten orduan danborra. Orain Arrasaten dago, Jembe ikastaroak ematen.



— Zertan diharduzu lanean?

— Irudimenaz egiten dut lan, gizakiak bere onera ekarriko dituen testuinguruan. 18 urte ditudanetik musikarekin ibili naiz lanean: rock and rollaz, Tibeteko musikaz, Japoniakoz... baina pinturaz ere lan egin dut. Naturan isolatzeko modu ezberdinak landu nahi ditut, esperientzia horretatik zerbait ateraz eguneroko bizitzarako.

— Zerk erakartzen zaitu horretan?

— Kultura interesatzen zait, berria eta aspaldikoa. Zubigintzan dihardut gaur egungo kultura eta aspaldikoaren artean. Imajinazioaz lan egiteak eragin handia du besteengan. Gizaki orok jakin nahi du non bizi den. Edonon zaudela, New Yorkeko kaleetan edo koba zulo batean, jendeak soinu batzuk edo pintura batzuk egingo ditu, zerbait adierazteko.

— Baina, kulturak azaletik ezagutzeaz gain, leku ezberdinetako pertsonen sustraiak ere ezagutu nahi zenituen.

— Bai. Gero gizakiaren beste maila sakonagoak aztertu nahi nituela iruditu zitzaidan. Orduan hasi nintzen harremanetan Ipar Ameriketako indioekin, Aborijenekin eta Tibeteko jendearekin. Mundua ulertzeko oso modu bestelakoak daude. Hainbat jende etortzen da ni ikusi eta nirekin egotera, erritmoak ikasi edo hitz egitera.

— Euskal Herrira noiz etorri zinen lehenengoz?

— Duela zortzi urte eta erdi.

— Eta gazteriarri dagokionez?

— Gazteak aurrera begira ari dira. Mundu guztiak bilatu nahi du bide bat bere burua adierazteko, eta bilaketa hori oso naturala da.

— Zerk eragiten du horretan?

— Gure inguruan egiten ari den publizitatea bizimodu mota bat saltzen ari da. Publizitateak saltzen duen hori lortu nahi dugu denok, baina hori baino aurrerago begiratu beharko genuke. Belaunaldi zaharretan galdu egin da gidaritza hori. Ez dakite nora jo. Gure kultura kaosean murgilduta dago, eta esploratzeko aukerak ematen ditu. Hori interesantea da. Zenbait gauzatan, ordea, bildur gara geure baitan barneratzeko, taldetik aldentzeko.

— Musikak nola eragiten du horretan?

— Soinuekin eta irudiekin jokatzeko naturarekin harreman hori lortzen laguntzen du nire ustez.

“Naturan isolatzeko modu asko landu nahi ditut”

aste gazte

■ LANA

• Baztango bailarako kirol koordinatzaile bat eta kultura koordinatzaile bat behar dira. Epea: urtarrilak 21.

• Lezoko Udalerako, kirol azpiegiturako zuzendaria. Epea: urtarrilak 18.

• Gipuzkoako Foru Aldundiak, 5 suhiltzaile sarjentu plaza betetzeko deialdia egin du. Epea: EA Oean argitaratu zain.

■ ESKI IKASTAROA

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolaren eskutik, mendi eski ikastaroa egingo da Luz St. Sauveur eta Gavarnie-n, urtarrilaren 30-31n eta otsailaren 6-7an, hastapen eta hobekuntza mailetan.

■ GAZTE IKASTAROAK

• Alboka Ikastaroa: urtarrilaren 23tik San Juanak arte, larunbat goizetan, Arrasate Musikalen. Hastapen eta sakontze mailak. Matrikula 3.000pta/2.000 pta ikasle eta langabeentzat.

• Gaur Egungo Dantza eta Jazz Dantza: otsailaren 6tik maiatzaren 29ra, larunbatean, Arrasate Musikalen, hastapen eta sakontze mailak. Matrikula 5.000pta/3.000pta ikasle eta langabeentzat.

■ LEHIAKETAK

• AED elkarteak antolatuta, ipuin, poesia, bertso-paper, komiki, irrati, Leintz nahiz Ugaran bailaretako euskararen testigantzak eta irrati erreportaje lehiaketa. Epea: otsailak

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

OSKAR J. SAIZ (BORONDATEZKO LANKIDE NIKARAGUAN)

“Itxaropena gauza txikienetan la

Oskar J. Saiz 29 urteko ingeniaria da. Azken urtea Nikaraguako Dirianba herrian egin du. Hau Managuatik 40 km.ra dago eta 60.000 biztanle ditu. Pobrezia da han nagusi.

— Nolatan joan zinen Nikaraguara?

— Hasieran kaleko haurrekin lan egiten duen Managuako ikastetxe batera joan nintzen. Han nengoela, iritziz aldatu eta Dirianbara joan nintzen, hango Gobernu Kanpoko Erakunde batekin lan egitera, APAN erakundearekin (Asociacion Pro Ayuda a la Niñez Nicaragüense).

— Zer lan egiten duzu erakunde horrekin?

— Eskolara joaten ez diren edo kalean egun osoa igarotzen duten gazteekin lan prebentiboa egiten genuen. Goizean eskolara eta arratsaldean lantegietan aritzen ziren, etor-

kizunerako lanbide bat ikasten. Orain ordea, Dirianbako zabortegiko 12 gazte hartu ditugu, (9 urtetik 18ra bitartekoak) eta eurekin proiektu berri bat hasi dugu. Lur sail bat erosi eta hantxe baserriak lanak egiteaz gain, eskolan sartu ditugu. Familiak egiten ez duen hezitze lana egiten dugu.

— Nola baloratuko zenuke esperientzia hori?

— Oso interesgarria. Hasieran oso gogorra egin zitzaidan pobreziaren inguratuta bizi eta gazte horien etorkizuna ez ikustea. Hurrekin lan egitea ere zaila da, batez ere esperientziarik ez duen batentzat. Azkenean, moldatu nintzen eta eurak ere egokitu ziren.

— Nondik datorkizue dirua?

— Elkarlanetik. Proiektu honetarako Espainiako, Suediako eta Nikaraguako GKE-en laguntza izan genuen.

— Lehen aldian berbetan ari gara. Mitch urakanaren aurrekoa eta ondorengoa

bereiztu behar ditugu?

— Gauzak piska bat mar txan genituenean etorri zen Mitch eta dena galdu da. Dirianba aldean ez da hildakorik izan, baina uzta guztia galdu da. Iparraldean izan dira arazo gehienak. Hamar egun etxetik atera gabe egon ginen. Gertatutakoa ikusita, gure lana utzi eta Iparralderantz jo genuen laguntzera.

— Nola bideratu duzue laguntza hori?

— Nikaraguan ez dago inorekin fidatzerik. Ustelkeria arlo guztietan dago. Batzorde bat sortu genuen eta familiei eta lagunei deitu genien laguntza eskatzeko. Janariak eta behar zena geuk erosi eta kudeatu dugu. Nahiko ondo mol-

“Mitch urakanak kalte handiak eragin ditu, baina jendearen egoera oso gutxi aldatu da”



egitetik dator”

datu ginen eta jasotako laguntza ikaragarria izan da. Lehenengo egunetan milioi bat pta. heltzen zitzaigun eguneko. Orain enpresak ere hasi dira dirua bidaltzen. Familia bakoitzarentzat astebeterako janari paketeak egiten genituen. Farmaceuticos Mundi eta Ingenieros Sin Fronteraseko laguntzaileekin elkarlanean aritu ginen. Laguntza irizpide batzuen arabera banatu dugu. Gutxieneko fidagarritasuna eskaintzen ziguten talde eta jendearekin aritu gara, baina dena gainbegiratuz.

— Urakanaren ondorioak saihesteko modurik zegoela uste duzu?

— 1988an Joan urakana izan zenean, aurreikuspena egin zen eta lau plan egin zituen gobernuak. Jendeak bazekien zer egin behar zuen. Orduan ere galerak oso handiak izan ziren, baina ez zen inor hil. Aurten ez dute inongo neurririk hartu eta hartu izan balira askoz ere jende gutxiago hilko zatekeen.

— Eta orain zer?

— Etxeak eraikitzen hasi gara. Bi leku hautatu ditugu, Iparraldean bat, Ocotal, eta beheago bestea, El Sauce, Leoneko departamenduan. Ni Ocotalera joango naiz eta Ayu-

da en Accion GKerekin arituko naiz garapen plan bat egiten. Koordinazio lana egingo dut. Oso lan ezberdina izango da, bulegokoa.

— Nola barneratzen dute zuek eskaintako laguntza?

— Arazo handia da. Lehenengo iraultzarekin eta gero elkarlana dela medio, jendea eskatzera ohitu da Nikaraguan eta menpekotasun handia dago. Elkarlanak asko egiten du, baina ohitura txarrak ere sortarazten ditu. *Mitch* urakanak kalte handiak eragin ditu, baina jendearen egoera oso gutxi aldatu da. Lehen ere bazegoen pobrezia gorria eta lehen eta orain jende bera da ezer ez duena.

— Non dago Nikaraguarren etorkizuna?

— Nik ez dut ikusten. “Gaur egun Nikaraguan itxaropena daukanak informazio gutxi duelako da” esan berri du Maria Lopez Vigilek, eta hori oso gogorra da. Itxaropena gauza txikienetan lan egitetik dator. Ni Ocotalera joango naiz eta gauzak ondo egiten saiatuko gara. Han gauza asko egin daitezke. Gure lana aurten hasiko da eta horren fruituak sei urte barru ikusiko dira. Etorkizuna epe laburrean baino, epe luzera aurkitu behar da. ■



**BATZUK LOTSAGARRI
IBILTZEN DIRA**

“Nikaraguan ustelkeria oso zabalduta dago. Horregatik, fidagarritasuna eskaintzen diguten taldeekin aritu gara, dena gainbegiratuz”

ETXEBIZITZAK

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. 100m² ingurukoa eta egoera onean. Tel.: 943 79 21 46.

3. Errentan emateko

• Emakume alargunak ikasle bati (hobe neska bada) logela bat alokatzeko gertu Bilboko Santutxu auzoan. Metroko sarreratik gertu dago. Merke. Tel.: 944 33 54 41.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 94 445 10 71.

• Lau gazte gara gure autogestiorako nekazaritza eta eskulangintza proiektuak ditugunak. Beraz, gustura hartuko genuke berrizteko dagoen baserri zahar bat. Tel.: 943 79 48 09 (Itziar).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 20 20 (Iker).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 46 61.

5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Hiru logela hiru pertsonarentzat, Arrasateko erdialdean. Tel.: 930 71 29 31. Arratsaldez.

• Gela bat alokatu nahiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 01 21. Mitxel. Gaeuz deitu.

• Logela bat behar dut ikaslez osaturiko etxebizitzan. Tel.: 94 683 00 86.

• Etxebizitza edo logela behar da Arrasaten. Tel.: 943 79 59 60 (lan orduetan).

• Bi langilek beste lagun bat behar dute Arrasaten dagoen etxebizitza osatzeko, Erguin auzoan (bakoitzak bere logela). Tel.: 943 77 15 67.

• Gela bat alokatzen da Arrasateko erdi aldean. Tel.: 943 79 87 59.

• Bi mutilek pisu merke bat alokatuko genuke. Etxebizitza osatzeko ere prest egongo ginatke. Tel.: 943 79 89 73.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskakerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskakerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Etxebizitza osatzeko lagun bat behar da Arrasateko erdialdean. Tel.: 94 636 29 69.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garaje itxia salgai Zarugalde kaleko 16.ean. 16m²koa. Tel.: 943 79 02 79.

• Lonja salgai Uriburu kalean. Tel.: 943 79 45 58.

• Garajea salgai S. Andres eskolaren ondoan, auto batentzat. Tel.: 943 62 46 00 (102 luzapena). Santi.

• Garajea salgai Kurtzetxiki kalean, 36an (San Andres auzoan). Tel.: 943 79 41 68 (Andoni).

9. Errentan emateko

• Uarkapen garaje itxia alokatzen dut. Prezio onean. Tel.: 943 79 84 35.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m²ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 07 24.

14. Errentan emateko

• 100 m²ko eta bi solairuko tokia alokagai kalealdean, Zarugaldetik gertu. Tel.: 943 79 07 24.

• Garajea alokagai. Musakola aldean. Tel.: 943 79 37 38 (eguerdian).

• Eratuta dagoen 20 m²ko bulego komertziala garaje itxi baten truke aldatuko nuke. Tel.: 943 77 16 00.

15. Errentan hartzeko

• Taberna alokatuko nuke Arrasaten, Aretxabaletan edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 / 930 444 658

• Lagun talde batek garajea edo lonja alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 69 64 (Xabier) edo 943 79 61 44 (Dani).

14. Errentan emateko

• 75 m²ko lonja bat alokagai Anbo-to kalean. Tel.: 943 79 98 07.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko edo pertsona nagusiei konpainia egiteko. Tel.: 943 71 53 74 (goizean edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera).

• 27 urteko neska prest legoke haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Taberna batean ere lan egingo luke. Zortzi urteko esperientzia du. Tel.: 943 77 08 13 (M^a Carmen).

• Eperientzia handiko emakumea prest dago arropa konponketak egin, sukaldeko lanak edo plantxa egiteko, orduka. Tel.: 943 79 59 43.

• Psikologoak laguntza emateko gertu. Tel.: 943 79 86 28.

• Italiar lizentziatua italiarako eskolak eta itzulpenak egiteko gertu. Tel.: 943 76 65 24.

• Psikologoa laguntza emateko gertu. Tel.: 649 22 51 07.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74 (Goizez edo 20:00etatik aurrera detu).

18. Eskakerak

• Aramaioko taberna batek garbitzailea behar du asteburuetan. Tel.: 945 44 50 86.

• Sukaldari laguntzailea behar da taberna batean, asteburu gauetan lan egiteko. Tel.: 943 79 11 25.

• Pertsona bat behar da Arrasateko taberna batean lan egiteko. Utzi telefonoa eta izena erantzungailuan eta deituko dizugu. Tel.: 943 77 11 92.

• Andra bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskalduna. Tel.: 943 77 04 60 (Margari).

• Ingelesetik gaztelaniarako itzulpen bat egiteko, bertako baten laguntza behar da. Tel.: 609 44 73 13 (Juanjo).

• Pertsona bat behar da astebukeretan pertsona nagusi bat zaintzeko. Tel.: 943 79 98 26 (20:00etatik 22:00etara deitu).

• Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 22 92.

- Leniz garagardotegian pertsona bat behar da lan egiteko. Orduategia eta soldata eztabaidatuko dira. Tel.: 943 79 22 29.

- Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar du. Deitu arratsalde. Tel.: 943 79 73 82.

- Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar du. Tel.: 943 77 12 08 (deitu 19:30etik aurrera).

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Margo eta marrazki artistikoko eskolak ematen dira. Tel.: 943 79 19 23 (eguerdian edo gauean deitu).

- Enpresa Zientzietan lizentziatuak eskola partikularrak ematen ditu, 15 urtetik beherakoei. Tel.: 943 79 06 39.

MOTORRA

23. Saldu

- Nissan Vanetta furgoneta salgai. VI-M. Merke-merke. Tel.: 943 79 58 29.

- Peugeot 106, 1.100 injection salgai. 93 urtekoa. 70.000 km. 650.000 pta. (negoziatzekoak). Tel.: 607 86 16 98

- Yamaha salgai, 93koa. Egoera onean. 350.000 pta. Tel.: 943 79 78 36

- Fiat 1 turbo salgai. 118 cv, 91koa, 90.000km. Egoera onean. Tel.: 943 79 45 50 (Jesus).

- Peugeot 306 XSI salgai. 2000cc³ 2 ate, aluminiozko llantak, 70.000 km. Merke. Tel.: 943 79 78 32.

- Fiat 1 Turbo salgai. 118 cv. 1991 urtekoa, 90.000 km. Egoera onean. Tel.: 943 79 45 50.

- Renault 11 GTX salgai. Tel.: 943 79 69 13.

DENETARIK

26. Saldu

- Flex markako literak salgai. Egoera onean. Prezioa 30.000 pta. Tel.: 943 79 57 64.

- Argazki makina salgai. Minolta X-

300. Tamron 28-200 objektiboa. Star-biltz flash-a. Tel.: 943 88 16 08. Arratsalde edo gauez.

- Bebe-Confort markako ume kotxea salgai. Euritarako plastikoa dauka. Aulki estalkia ere bai. Tel.: 943 79 38 16 (10:00etatik aurrera) Idoia.

- Mahai tolesgarria salgai. Tel.: 943 79 18 50 (Sole).

- Alpha markako fly berde bat saltzen dut. Tel.: 943 79 54 14 Julien.

27. Erosi

- Boxer arrazako txakurkumeak salgai. Txertatuak eta pedigridunak. Tel.: 943 85 32 44 / 608 770 651

29. Eman

- SOS. Ijitoek mantak behar dituzte. Laguntzeko prest bazaude, eraman itzazu Zaldispeko aparkalekura edo Jai zale tabernara 15:00etatik aurrera. Eskerrik asko.

- Egoera onean dagoen eta 90 zm.ko luzera duen ohea (koltxoirik gabe) eman nahi dut, eta baita lanpara bat ere. Tel.: 943 79 68 57 (goizetan deitu eta Teresaz galdetu).

- Koltxoiren bat bota behar baduzu, deitu telefono honetara, guk behar dugu eta: 943 77 05 90 (Nagore). Eguerdian deitu.

31. Galdu

- Norbaitek Gabonzahar gauean nere berokia hartu zuen Kajoi tabernan. Berokia urdin iluna eta txanoduna zen. Nik beste beroki bat hartu nuen, beltza eta botoiduna. Tel.: 943 77 16 29 (Leire).

32. Aurkitu


- Santamas egunean Portaloi inguruan saltokia ipini zuen saltzaile bati generadorea galdu edo norbaitek hartu egin zion. Honi buruz berriren bat duenak dei egin dezala mesedez udaltzaingora. Tel.: 943 79 14 39.

33. Bestelakoak

- Arrasatetik Bilbora joan-etorria egiteko autobusa jarriko da. Goizeko 07:30etan irtengo da eta arratsaldeko 17:30etan itzuliko. Tel.: 943 79 01 00 (dei egin goizeko 09:00etatik 17:00etara. (Pedro Bideguren).

- Jembe ikastaroa, Nick Twinlleyk zuzendua. Bi maila: oinarrikoa eta zerbait dakitenentzat. Berri gehiagorako: 943 79 80 25 (Iñaki).

Abenduaren 27tik aurrera
berriturik gatoz



BESTE BATZUK JANTZI
EGITEN GARA

euskaldunon
Egunkaria

Arrasate irratia berrikuntzaz lepo

Arrasate Irratiak zabaldu egin du ostiraletako programazioa. Lehenago iluntzeko 21:00etatik gaueko 24:00ak arte izaten zuen. Orain, ordea, arratsaldeko 19:30etan hasten du irratia emankizuna, eta hama-bietan bukatu, lehen bezala.

Horretaz gain, zenbait programa berriak dira. "Magali" irratsaioa, adibidez, azaroan estreinatu zen. Garbiñe Perezek eta Vanesak euskal mitologia, antzinako sinismenak, ohiturak eta kontu zaharrak jartzten dituzte entzulearen aukeran, astean behin.

"Barne munduarekin solasean" saioan Mondragon Unibertsitateko ikasleek ipuinak kontatzeaz gain, astero musikari ospetsuren baten bizitza izaten dute aztergai.



Marian Porcel eta Arantxa Egoskozabal.

MUSIKAZ BLAI

"To Musika" irratsaioa ere denboraldi honetako estreinaldia da, eta musika kantuko komertzialak edo gehien entzun ohi direnak jartzten dituzte entzuleen eskura.

Ostegunetan ere izaten da musikari buruzko beste programa bat, "Ostegunero" hain zuzen ere. Nazioartean boladan dagoen musika ekarri ohi dute

Arrasate irratiko uhinetara.

Euskal Herriko talde berrien doinuak ere aieratzen dira ostiraletan, arratsaldeko 19:30etatik hasita, "Kale doinuak" saioan. Hau bukatu ostean, "Planing" programak hartzen du lekukoa 107.7an, asteburuko agendari erreposoa egiteko. Honen ostean izaten den "Hiru, bi, bat akzioa" saioan, berri, pelikula berriak izaten

dituzte mintzagai, eta Alai zinemarako pare bat sarrera ere zozketatzen dituzte.

LARUNBATETAN, SARI UGARI

Larunbatean ere programazio bete-betea izaten da. "Jakinguraz beteta" saioan osasun kontuak, errezetak... izaten dira hizketagai. Ondoren "Jailarai" izaten da, eta hau bukatu bezain laster musika klasi-koa. "Bi zoro eta zu" saioak fitxaje berria du, Haika Aizpurua hasi baita lanean, Edu Abasoloren ordez. Hainbat sari zozkatzen dituzte asteburuero, eta hilean behin, berri, sari potoloa: bi lagunentzako asteburu baterako egonaldia Donostiako Costa Vasca hotelan.

ANTZERKIA Amaia antzokian

EGUNA: Urtarrilak 17, igandea

ORDUA: 19:30etan

SARRERA: 1.000 Pta. - Gazte Txartelarekin: 800 Pta.

Alexis Valdes-en

**Kubako
komikorik
ospetsuena!!**

*"Me sale
de mi
cabecita"*




ARRASATEKO UDALA
Kultura Saila ■



Kaleidoskopioan Juan Martin Elexpuru

Juan Martin Elexpuru idazle bergararra izango da datorren egunean ATBko "Kaleidoskopioa" saioan. Juan Martin Elexpuru Uberan jaio zen duela 48 urte, eta literaturan hainbat lan egin ditu. Horien artean baita bi bidaia liburu ere. Bata *Kuba Triste Dago* izeneko. Liburu honek arrakasta handia izan du, hainbat berrargitalpen izan baititu. Bestea, aldiz, bizikleta hartu eta Italiara egin zuen bidaiaren bizipenetan oinarritua. *Fernando Plentxiarra* liburu entzutetsua ere berak idatzi zuen, eta baita beste hainbat lan ere.

ATBra, ordea, bi arrazoi-erengatik ekarri nahi izan dute "Kaleidoskopioa" programara. Batetik, *Krabelina Beltza* liburua orainsu argitaratu delako. Bestetik, berriz, Txalaparta argitaletxeak Literotura bilduma zuzentzeko ardura



Juan Martin Elexpuru.

eman diolako. Bilduma horrek bi liburu ditu oraingoz: *Krabelina Beltza* eta ipuin erotikoak jasotzen dituen liburua. Bi liburu horiek Durangoko

liburu azokan egon ziren salgai, eta izugarritzko harrera ona izan zuten gainera. Izan ere, liburu bakoitzetik 700 ale saldu ziren gutxi gorabehera.



Jone Astigarraga

BI EMAKUME AURREZ-AURRE

Aurrez-aurre saioan, ostera, Jone Astigarraga Familia eta Gizarte Heziketarako Zentruko arduraduna izango du gonbidatu gisa Karmele Zua-zubizkarrek. Jone Astigarraga *Aurrez-aurre* programan izango den lehenengo emakumezkoa izango da. Ezin hobeto betetzen du bere ardurara Familia eta Gizarte Heziketarako Zentruan, lana gogotik egiteaz gain, hainbat ikastaro eta hitzalditan ere parte hartzen baitu.

■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 16	ASTELEHENA, 18	ASTEARTEA, 19	ASTEAZKENA, 20	OSTEGUNA, 21	OSTIRALA, 22
<p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Musiklasik, Mahai ingurua, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga aretxabaletarrak aurkeztuta.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Mondrasport (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Munduari bueltaka Garikoitz Kortazar bidaiazaleak aurkeztuta. Yemen bisitatzeko aukera paregabea ATBren eskutik.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Munduari bueltaka.</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Aurrez-aurre tertulia saioa Karmele Zuazubizkarrek aurkeztuta. Jone Astigarraga Familia eta Gizarte Heziketarako Zentruko arduraduna izango du gonbidatu gisa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Aurrez-aurre (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Kaleidoskopioa Unai Iparragirre eta Aitziber Langaranek aurkeztuta. Juan Martin Elexpuru idazle bergararra izango da, <i>Krabelina Beltza</i> liburua- ren aurkezpena egiteko.</p> <p>22:00 Soinuz Blai.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena.</p> <p>13:35 Kaleidoskopioa (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Astebete albistegian asteko notizia garrantzitsuenen errepasoa, Maider Osak aurkeztuta.</p> <p>22:00 Soinuz Blai musika programa Iban Gonzalezek aurkeztuta.</p>
<p>IGANDEA, 17</p> <p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Musiklasik, Mahai ingurua, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.</p>	<p>Itxaro Zubillaga.</p>				



1957-1958. urtean, Ferixalekuan Ferratze eta Intseminazio Artifizialerako zentrua inauguratu zen. Hantxe izan ziren Jose Luis Iñarra parrokoa bedeinkapena ematen, Eugenio Etxebeste meza-mutil lanak betetzen eta Joakin Etxebarria udaleko zinegotzi bezala. Herrador jauna zen orduko albaitaria eta Julio Otaduy Riviere, berri, herriko alkatea.

Zentru hau, lehengo Zine Gurearen parean zegoen, Aramaio errekaaren ondoan eta orain 30 bat urte bota zuten. Izan ere, orduan Aramaio erreka estali zuten Ferixalekutik Monterron Jauregiraino Montxon etxe multzoa egiteko.

Argazkia:

Arrasateko Udala.

Berriematea:

*Joaquín Etxeberria,
Jose Mari Balanzategi
eta Arrasateko Udala.*

GANBARA



Enmarkazioak - Berriztatzeak

- LAMINAK
- ESTILOKO MARKOAK
- ARTELANAK

Zabaldu berria

Udala enparantza (Erguin, 2 - behea)

Tel.: 943 79 38 23



**Urtarrileko aldapari goitik behera
begiratzten diogu hamabostaldi
honetan prezio hoberenekin.**

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO **RK AUZ** FAGOR

ALTZARIAK

SUKALDE INTEGRALA



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA